1919·2019

ARGIA

Ramadana gaztetxean

Kalean bizi diren gazte etorkinen duintasuna helburu

#2.645 // 2019 / 05 / 26 | 3,90 €

Gipuzkoako zaharren egoitzak greban soldata arrakalaren aurka

22 I EKONOMIA

"Amodio-gorrotozko harremana daukat nire istorioarekin"

44 I AEHAM AHMAD, ERREFUXIATUA

LARRUN #242

Lan egin, bizi, kontsumitu datuen eta pantailen aroan

EUSKAL KULTURAREN HENDAIA ELZARD ALDE

EKAINAK **01**

XV. Literatur mintzaldia **Koldo Izagirre**

Aurkezlea: Patri Urkizu

Mediateka Hendaia **18:00**

EKAINAK **05**

X. Irakurraldi publikoa **ARGIA astekaria**

Zatoz gurekin irakurtzera eta entzutera

Mediateka Hendaia **14:00-19:00**

ARGIA 1919·2019

eke icb EUSKAL KULTUR ERAKUNDEA INSTITUT CULTUREL BASQUE

irakurraldia@gmail.com

ARGIA

2.645 zenbakia I Maiatzak 26, 2019

Panorama

04 I ASTEKO ARGAZKIA
06 I AKTUALITATEA
07 I GAIZKI ERRANKA
07 I EZ HANKA EZ BURU
08 I EKONOMIAREN TALAIAN

AZALEKO ARGAZKIA:
DANI BLANCO

Iritziak

17 I KARMELO LANDA
18 I BEA SALABERRI
19 I ANUNTXI ARANA
19 I BEÑAT SARASOLA
20 I IMANOL ALVAREZ

SAILEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK:
CLIPART COURTESY FCIT

Finkoak

39 I DENBORAREN MAKINA
40 I BIZI BARATZEA
42 I ARGIA KOMUNITATEA
48 I KULTUR-KRITIKAK
50 I ZUZENEKO EMANALDIA
51 I DENBORA-PASAK
52 I ARGI-KONTRA: DANIEL PASCUAL
54 I BERANDUEGI

IGONE MARIEZKURRENA

44 I **PIANO DOINUAK GUDAN**
Siriako Yarmouk errefuxiatu gunean jaio zen Aeham Ahmad, palestinar familia batean. Pianoa zuen ogibide, baina gerrak dena kendu zion. Sarraskiaren erdian musika egiten jarraitu zuen ordea, eta irudi haiek Mendebaldeko hedabideetako orrialdeak bete zituzten. Argazki hura madarikazio bilakatu zaio. Igone Mariezkurrena izan da berarekin.

Elkarrizketak eta erreportajeak

10 I NET HURBIL
Singapurreko paradisuan adreiluak garraiatzen dituzten idazle etorkin horiek
Pello Zubiria Kamino

12 I FELIX IBARRONDO
"Musikagile asko ziztuan bizi dira, ez dakit nola asmatzen duten musika egiten"
Miel A. Elustondo

22 I GIPUZKOAKO ZAHARREN EGOITZAK GREBAN
Bi urte hitzarmenik gabe
Onintza Irureta Azkune

27 I YOGA
Barruan hasten da dena
Ainhoa Mariezkurrena Etxabe

28 I OMAR ROJAS BOLAÑOS, SOZIOLOGOA
Kolonbiako gobernuak 10.000 pertsonatik gora bahitu, hil, gerrillari uniformez jantzi eta gatazkan hildakotzat aurkeztu ditu
Jabi Zabala

32 I RAMADANA INTXAURRONDOKO GAZTETXEAN
Etxerik gabeko gazte migratzaileentzat alternatiba
Xalba Ramirez

36 I HIZKUNTZA GUTXIAGOTUAK
"Gure identitatea mantentzen dugu"
Jonmikel Intsausti

OLATUKOOP
EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN SAREKO KIDE

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZAK DIRUZ LAGUNDUA)

Jabetza
Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaiña Taldeko partaidea
Lehendakaria
Bego Zuza
Erredakzioa
Amaia Fernández, Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Bereziartua, Jon Torner, Lander Arbelaitz, Mikel Asurmendi, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga
Diseinua
Maitane Gartziandia
Argazkilaria
Dani Blanco
Produkzioa eta inprimaketa
Antza S.A.L.
Administrazioa:
Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte
Salmenta
Idoia Arregi, Ixabel Bereziartua, Karlos Olasolo, Maite Arrieta, Olatz Korta
Idazkaritza
Aloña Soraluze, Bego Zuza

Web garapena
Asier Iturralde
Informatika
Iametza interaktiboa, S.L.
Lege gordailua
SS 837-2012
ISSN
0213-909X
Batzorde parekidea
72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Gipuzkoa
Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria
Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa
Xalbardin baita. 64122 Urruña
Nafarroa
Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina
31001 Iruñea

Posta elektronikoak
komertzial@argia.eus
harpide@argia.eus

Telefonoa
943371545

Ametzagaiña taldeko kidea da Argia honako enpresekin batera:

antza KOMUNIKAZIO GRAFIKOA
iametza interaktiboa
ADUR software productions

Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero. Are gehiago, gure edukiak ahalik eta gehien zabaltzea nahi dugu.

CC BY SA

Lizentzia hau soilik ARGIAren edukientzat da baliagarria, baliteke beste testu eta argazki batzuk lizentzia hau ez izatea.

Aske maitatu

Homofobia, Transfobia eta Bifobiaren aurkako eguna izan da maiatzaren 17a, aldarrikapen eguna munduko txoko ugaritan. Mexiko Hirian adibidez, musu maratoia egin dute (argazkian). Gurean, mobilizazioetatik harago, datuak ere ezagutu ditugu. Zaharrak berri: LGBTIfobiari lotutako eraso eta gorroto delituek ez dute etenik. Aske maitatu nahi dutenen borrokak ere ez du etenik, ordea: Harro! Transmaribibollo Plataforma jaio berri da, lan eta zaintza sareak sortu eta erasoen aurrean erantzun erreala ematea helburu.

SASHENKA GUTIÉRREZ / ALAMY LIVE NEWS

MIKEL GARCIA IDIAKEZ

ANDONI ARRAIN-SALTZAILEA DA BARAKALDOKO MERKATUAN. 4.30EAN ESNATZEN DA, POSTUA ATENDITU ETA ARRATSALDEAN BESTE DENDA BATEAN EGITEN DU LAN. GAUEKO HAMARRETAN IXTEN DU PERTSIANA. EZ DA KEXATZEN, EZ DU LAGUNTZARIK ESKATZEN; IDEIAK ESKATZEN DITU SOILIK

@urementeria

KAIXO UNAI REMENTERIA, JAKIN NAHIKO NUKE ZURE URTEKO SOLDATAKO 102.000 € HORIEK HAMABI EDO HAMALAU PAGATAN JASOTZEN DITUZUN, MINUTU BAT LIBRE DUDANEAN KALKULO TXIKI BAT EGITEKO...

@Arraindoni_4_30

BIZITZEKO LAN EGITEA ALA LANERAKO BIZITZEA. ZORITXARREZ ANDONI ARRAIN-SALTZAILE GEHIEGI DITUGU GURE HERRI TXIKI HONETAN. ETA HORI ARDURADUN POLITIKOEK KONPONDU BEHARKO LUKETE, INOLA ERE EZ GORAIPATU

@josubergara

REMENTERIAREN TXIO NAZKAGARRITIK ARRETA DEITZEN DIDANA DA XENOFOBO ETA KLASISTEK DARABILTEN "EZ DA KEXATZEN, EZ DU LAGUNTZARIK ESKATZEN" HORI, NOLABAIT PRESTAZIOA JASOTZEN DUTENAK KEXATIAK DIRELA SALATUZ ETA ERDEINATUZ, ALFERRAK BAILIRAN

@fantomastxiki

Erlauntz etxebizitzak Bilbon

Z. OLEAGA

600 logela eraiki nahi ditu "Erlauntz etxebizitzak" eraikitzen dituen Haibu enpresak. Bilboko Udalaren baimena duela dio enpresak. Hainbat hiritan debekatu egin dituzte bizitzeko gutxieneko baldintzak ez dituztela betetzen iritzita.

Haibu 4.0 enpresak txio bat idatzi zuen maiatzaren 14an. Bilboko bere lehendabiziko erlauntzan gela bat hartzeko eskaintza zabaltzen duela jakinarazten du bertan. Ez da enpresak Bilbon aurreikusita duen bakarra. ARGIAk informazioa lortu du logela bat alokatzeko interesa duten herritarren ahotik. Esan digutenaren arabera, hainbat erlauntz eraikitzeko asmoa du Haibuk. Bat aireportu inguruan, hiruzpalau erdigunean, eta beste bat Bilbotik 20 kilometrora dagoen herri batean. 600 pertsonentzako tokia guztira. Lurren erosketa fasean dago enpresa. Moduluak stockean daudela esan diete, behin akordioak itxita hamabost egunetan instalatzen dituztela, etxe prefabrikatuak baitira.

Haibuk erlauntzak ditu Espainiako Estatuko zenbait hiritan; Sevillan, Madrilen edo Bartzelonan kasu. Katalunian eraikin hauek eztabaida dezente piztu dute. Bartzelonako Udalak debekatu egin ditu, bizitzeko gutxieneko baldintzak betetzen ez dituztela argudiatuta. Hala ere, enpresak martxan jarri ditu zenbait erlauntza Kataluniako hiriburuan modu ilegalean, "coworking" enpresa bezala izena emanda, esaterako. Bilbon Udalaren baimena duela ziurtatu die enpresak interesatuei.

Erlauntzen ereduak logela txiki eta merkeak ditu oinarri. 2,2 metro luze, 1,2 metro zabal, eta 1,2 metroko altuera: ohea sartzen da ozta-ozta, eta zutik egoteko aukerarik ere ez dute ematen. Logela pribatuez gain, espazio partekatuak daude: sukaldea, bainugelak eta egongela. Teorian erabilgarriak, baina hainbat informazio eta erreportajetan ikusten dena aintzat hartuta, zalantzan jarri daiteke.

Etxebizitzaren prezio garestien aurrean, "aldi baterako irtenbidea" eskaintzen duela dio Haibuk, hizkera soziala erabilita. Etxebizitza "jasangarriak" eraikitzen dituela dio, pertsonei "duintasunez bizitzea eta aurreztea" ahalbidetzen dietenak. Bartzelonako logelengatik 200 edo 250 euro ordaindu behar da hilero. "Niri esan didate Bilbokoak 150 eta 200 euro artean egongo direla, erlauntzen tamainaren arabera". Haibuk bezero mota bat bilatzen du: langile prekarizatua.

GAIZKI ERRANKA

Karlistaldiak

SANTI LEONÉ

Gustatu zitzaidan Ilaski Serranok *Ahoz aho* saioan Asiskori egin zion elkarrizketa, eta anitz gauza interesgarri kontatu zituen Urmenetak Agosti Xahori buruz, *Azti Hitza* komikiaren kariaz: gure kulturako erraldoia dela, eta halere –edo hain zuzen ere horregatik– aski ezezaguna dela gure artean; errepublikarra izan zela, gorria, feminista errotik eta, nonbait, gaya. Komikia, nolanahi ere, ez da Xahoren biografia; lehen karlistaldian zuberotarrak Nafarroara eginiko bidaia paratzen du iruditan, betiere gaurkotasuna duelakoan. Pena da, 21. mendeko heroia izan dadin hainbertze eginahal egin ondotik, bidean Deloreanek huts egin eta Xahoren bidaiak joan den mendeko 80ko hamarkadan lur hartu izana, *Euskadi alegre y combativa* zen garaian hain justu ere. Giro jatorrean egin du bidaia Xahok, borrokan kontent ari diren jendeen artean, eta Lesakan egin diote euskaldunen adorearen gorazarre; ea ikusten dituen pilotalekuan ari diren mutilak: "katakumeak jostetan, gaitzeko tigreak guduan. Ikusi beharko zenituzke sarraski latzenetara sartzen! Gehienek ez dauzkate hamasei urteak". Euskolabo naizen hau oraindik ari da orrialde hori digeritzen.

Karlistak eguneratu ditu hondar egun hauetan Euskal Herria inarrosi duen ebentoak ere. *Napardeath* filmaz ari naiz, bistan dena. Trilogia bati akabera eman diote Beñat Iturriozek eta Xabier Padinek: umorea, frikismoa eta zinemazaletasuna –lau erreferentzia segundoko–, historia eta gogoeta politikoa nahasi dituzte hiru filmetan: are inportanteago, hutsik egin gabe 21. mendeko kezketara egokitu dituzte zonbi karlistak eta momia nafarrak, eta, inori leziorik eman gabe, hausnarrerako bazka ederra eskaini digute. Trilogia akituta, merezi duen saiakera idazteko tenorea dugu nire ustez. Ni, badaezpada ere, hasi naiz oharrak hartzen libreta batean. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA
www.adurlarrea.com

"72 ORDU BAINO GUTXIAGOTAN ETA ESKU-HARTZE JURIDIKORIK GABE KANPORATZEN DUTE JENDEA"

ERRIBERAKO SENEGALDARREN ELKARTEA

Egoera irregularrean egoteagatik, Modou Khadim Ribaforadako bizilaguna Senegalera kanporatu zuten duela bi aste, Udalaren eta alkatearen laguntzaz. Elkarteak espres kanporatzeak salatu ditu, bermerik gabe egiten direlako eta alkateak Khadimi jarritako moduko hitzordu-tranpak gero eta ohikoagoak direla kritikatu dute. "Uste dugu prebarikazioa izan daitekeela. Bere konpetentzia eta funtzioetatik harago joan da Udala". Arrazakeria instituzionala leporatu diote alkateari **2019/05/17**

EKONOMIAREN TALAIAN

Europa, soziala ala militarra?

JUAN MARI ARREGI

Datorren igandean Europar Parlamenturako hauteskundeak ere izango dira. Seguruenik alderdi politikoek nahiago izan dute gai militarrak ezkutatzea, eta botoak lortzeko helburuz, denak arduratu dira gehiago gai sozialen inguruan. Baina datorren legegintzaldian segurtasun politika izango da Europako Komisioaren eta Euroganberaren ardatz nagusia, Europar gudaroste baten proiektu militarra baita Europar Batasuna integratzeko prozesuaren apustu garrantzitsuena.

Horretan ari dira jadanik funtzionarioak eta diplomatikoak, proiektu militar horrek eta "europar gudaroste" izenak jendartean sor dezakeen eraginarekin kezkatuta. Europako Alderdi Popularreko hautagai den eta EBko hurrengo presidente izan daitekeen Manfred Weber alemaniarrak esana da: "Anbizio handiak izan behar ditugu. Europan berriz gerrarik ez egotea funtsezko ideia da. Gaur pentsaezina da. Baina europar gudaroste partekatu batekin erabat pentsaezina litzateke".

Europako gastu militarra, zatikatuta egonik ere, 2018an 284.000 milioi dolarrekoa izan zen –Espainiako Estatuak 18.200 milioi gastatu zituen eta Frantziakoak 63.800 milioi, euskaldunen zergekin–, AEBetako gastuaren atzetik (649.000 milioi dolar). NATOko bozeramaile ohi Jaime Seha analistaren ustez "militarki lehiatu behar gara gure baloreak defendatu nahi baditugu". Beraz, armagintzara baliabide gehiago bideratzearen alde dago, sektore horretako lobbyek egunero EB presionatzen duten gisan. Euskaldunek eta europarrek aukera polita dute erabakitzeko Europa sozialagoa ala militarragoa nahi ote duten. Hauteskunde hauetara aurkezten diren alderdi politikoek publikoki eztabaidatu behar lukete hain larria den gai honi buruz, ezkutatu beharrean. ●

ANALISIA

JUAN PABLO FRIAS / WIKIPEDIA

Dopina: edozerk balio al du egoa elikatzearren?

JON TORNER ZABALA

Dopinaren aurkako euskal agentziak zigortu egin ditu bi ziklista beterano, EPO baliatu dutelako, *El Correo*k jakinarazi duenez. Raul Portillo munduko txapeldun da M40 mailan –errepideko lasterketa eta erlojuaren kontrakoa irabazi zituen 2018an–, eta Jose Antonio Larrea ere hainbat probatan nabarmendu da M30 mailan –2016an Espainiako txapelketa irabazi zuen–. Portillok, halaber, Quebrantahuesos zikloturista martxa ezaguna "irabazi" zuen iaz.

Hainbat jenderi, baita ziklismoa praktikatu edo jarraitzen duenari ere, entzun eta irakurri diogu albisteak "harritu" egin duela. "Zer nezesidade dute amateurrek horretarako?!". Ni, harritu nauena da hainbat jende horrelako albisteek harritzea. Nezesidadea, ba ez dakit, esaten da dopatzen den kirolariak bi helbururekin egin ohi duela: dirua irabazteko, edota lortutako balentriengatik txaloak jaso eta egoa elikatzeko. Pentsatzen dut bigarren horretatik gehiago dutela bi protagonistek, baina auskalo.

Egoeraren absurduak eragiten duen auzolotsa albo batera utzita, auziak eztabaida interesgarriak eragin ditu, bereziki zenbait zikloturista martxaren izaerari tiraka. Albert Valero marketinean aditua da txirrindularitza eta triatloi diziplinetan. Bere txioak laburbiltzen du esan nahi dudana: "Ziklista batek Quebrantahuesos (QH) irabazi duela esatea arazoaren parte da. Martxa zikloturistetan, sailkapenak kentzearen eta norberari mezu elektroniko bat bidaltzearen aldekoa naiz, soilik zuk egindako denborarekin, zuk zeuk soilik izan behar duzulako zeure arerio". Bat nator QH "irabazi" izanaren inguruan dioenarekin. Ez da konpetizio bat, beraz gisa horretako terminologia, podiumak, hedabideek erreproduzitzen dituzten sailkapenak eta bestelakoak baztertzea hobeto.

Behin egin dut QH, duela urte mordoxka, gehiegi sufritu gabe bukatzeko asmoz. Lortu nuen helburua. Nire atzetik gehienez 300 lagun helmugaratuko ziren, baina ni kontentu. Paisaiak, giroa, antolaketa… Oroitzapen ona dut. Sailkapenak, bost axola, nik nirea egin nuen. Ziur parte-hartzaile ugarik izan duela sentipen bera. Baina, berriro joango banintz? Ziur, hasteko, denbora hobetzen saiatuko nintzatekeela, edo lagun-taldekoei luzaroago eusten, edo… Uste dut pizgarri horiek politak direla, saltsa sortzen dutela. Kontua da noiz eta zergatik heltzen garen muga ustez logikoak haustera eta autoestimua elikatzearen truk erokeriak egitera. ●

ELHUYAR

CAF-ELHUYAR SARIEK 25 URTE

BEASAIN. Iñaki Sanz-Azkue ARGIAko kolaboratzaileak jaso du zientzia-kazetaritzako CAF-Elhuyar saria, *Hegaztiak, erleak, zomorroak... Sagastien zaindari txikiak* erreportajeagatik. Itziar Urizar, Maider Beitia, Jesus Mari Txurruka, Izaro Zubiria, Iker González, Iñigo González de Arrieta eta Martin Etxauri izan dira beste sarituak, hainbat kategoriatan. Sarion helburua da zientzia eta teknologiaren arloko gaien eta ikerketen euskarazko dibulgazioa, kazetaritza eta gizarteratzea bultzatzea.

PARKJISUN

POZOIKETA MASIBOA

117

hegazti harrapari pozoiz hiltzeagatik kondenatu egin dituzte Tutera eta Cintruenigoko ehiza barrutietako presidenteak eta basozain bat. Ehiztariei ehizaki kopurua murrizten dietelako hil zituzten harrapariak.

3 urte eta 8 hilabeteko espetxe zigorra ezarri diete. Baita 67.538,65 euroko kalte-ordaina ere, besteak beste.

Josu Urrutikoetxea ETAko buruzagi politiko ohia atxilotu dute

ARGIA

Frantziako eta Espainiako segurtasun indarren arteko polizia operazioan atxilotu dute Josu Urrutikoetxea ETAko buruzagi politiko ohia, Alpeetako Sallanches herrian.

2002TIK IHESEAN

Ugaon jaioa 1950ean, 1960ko hamarkadaren amaieran sartu zen sasian. 1971n Ipar Euskal Herrira jo zuen eta bertan ETArentzako lehergaiak lapurtzea bezalako ekintzetan parte hartu zuen. 1980an ETAko exekutibako kide bilakatu zen; ETAko azpiburua izan zen. 1989an Baionan atxilotu zuten eta 1996ra arte Frantzian bete zuen kartzela zigorra, ondoren Espainiaren eskutan geratu zen eta lau urte egin zituen behin-behineko espetxealdian. 2001etik 2002ra Eusko Legebiltzarreko parlamentarioa izan zen, EAEko Auzitegi Nagusiak legebiltzarkidetza kendu eta ihes egin zuen arte.

GAIXO

Erreakzioak berehalakoak izan dira. Hala nola, "Josu Urrutikoetxearen atxiloketa espainiar mendeku estrategiaren kapitulu berria idaztera dator", adierazi du Ernaik, edo Urrutikoetxea gaixo dagoela jakinik, "behar bezala artatu dezaten aske utz dezatela" exijitu du Amnistiaren Aldeko eta Errepresioaren Aurkako Taldeak, besteak beste.

EUROVISION. Lehengo astean ugariak izan ziren Eurovision jaialdiko aurtengo edizioari boikot egiteko deiak eta manifestazioak, tartean Gasteizen. "Herrialde demokratiko eta aurrerakoi moduan agertu nahi du Israelek munduaren begien aurrean eta bere sarraskiak eta gerra krimenak zuritu", salatu zuten.

IRUZURRA OSAKIDETZAN. Iazko oposaketetako iruzur eskandaluaren ostean, hurrengo lan eskaintzari eragingo dioten hamabi neurri aurkeztu ditu Osakidetzak. Besteak beste, epaimahaiko kideak zozketa bidez aukeratuko dituzte eta EAEtik kanpoko profesionalek diseinatuko dituzte azterketak.

ERRAUSTEGIA. Swansea hiriko Udalak (Galesen) azkenean uko egin dio udalerrian errauste planta berria eraikitzeko asmoari, proiektua oso aurreratua eta plangintza batzordearen baimen guztiekin bazetorren ere. Extinction Rebellion mugimenduaren protestek eragin dute erabakia.

SINGAPURREKO PARADISUAN ADREILUAK GARRAIATZEN DITUZTEN IDAZLE ETORKIN HORIEK

Menturaz ez zaizu inoiz burutik pasa poeta izan daitekeela kafea zerbitzatu dizun errumaniar hori, karrikako zuloan telefono sarea ikuskatzen duen perutarra, ama zaharra zaintzen dizuen nikaraguarra edo igeltseritzan ari dela entzun duzun pakistandar hori, ostiralez jantzi apainenez beztituta gurutzatzen duzuna. Nork esan dizu ez direla bertsolari edo kantari, agian margolari oso finak, gure seme-alabentzako nahi ez ditugun lanbideetara kondenatutako etorkinok?

PELLO ZUBIRIA KAMINO

Asiako muturrean, Singapur uharte-estatu ñimiñoa da munduko aberatsenetakoa, Barne Produktu Gordina biztanleka banatuta planetako lehen bosten artean daude singapurtarrak: sei familiatatik batek milioi bat dolarretik gorako jabegoak dauzka. Alabaina, ekonomiaren motorra Singapurren –aditu askok paradisu fiskalik handienen artean daukaten horretan– atzerritik ekarritako langile prekarioek mugiarazten dute gehien bat: lau langiletik bat aldi baterako baimenez ari den etorkina da.

"Singapurreko barrakoi honetan berarekin bizi diren 30 lankideetatik gutxik dakite MD Sharif Uddinek idatzi egiten duela. Uddin, Bangladeshen liburudenda baten jabe zena, Singapurrera etorri zen 2008an beste milaka herrikide bezala eraikuntzan lan egitera, ohore horren truke agente bati 10.000 dolar pagatuta". *Nikkei Asian Review* aldizkarian honela hasi du Peter Guestek "*Singapurrek literatur uzta bildu du kultura etorkinetatik*" kronika, zeinetan aurkeztu baititu herrialdean literatur sariak eskuratu dituzten etorkinak.

Mohammad Sharif Uddinek *Singapore Book Award* saria irabazi du ez-fikzioko obren artean, hamar urtetan eraikuntzako obreroen barrakoietan bizi izan dituenak bildu dituen "*Stranger to myself*" [euskaraz *Neure larruan arrotz* eman lezakeena] liburuarekin. "Liburu hau idaztea erabaki dut sigapurtarrek jakin dezaten herrialde hau ez dela gauetik goizera aldatu, ez dela izan mirakulua, jendea dago eraikinen eta azpiegituren atzean eta beste herritarrek ere ezagutu behar dute horien istorioa".

Ezkon berritan helduta, egunean 18 dolar irabazten zituen, horietatik ahal zuen guztia emazteari eta haur jaio berriari bidaltzeko. 12 orduz lan egin ostean gau eskolan ikasita lortu zuen eraikuntzako segurtasun begirale titulua eta gaur egunean 60 dolar irabazten ditu, 12 orduz arituta beti. Eta atsedenaldi laburrak dauzka oharrak hartu edo poemak idazteko.

2014tik urtero jokatzen da lehiaketa, Indian sortutako Shivaji Das idazle eta argazkilariak sustatuta. Liburua publikatu diotenean, Gwee Li Sui poeta, artista grafiko eta literatur kritikoak idatzi dio sarrera. "Shafi ohartzen da langile migratzailearen bizimodua ez dela naturala. Oinarrizko bortxaren poderioz gertatzen da. Langilea komunitate nahasi baten kide da, bi aldiz urrundua, bai sorterritik eta bai lanerako hartu duen herrialdetik. Bere gogoa eta gorputza bi lekuren artean banatu zaizkio, izaera berri bat ernez. (...) Behin eta berriz aipatzen duen sumendiaren irudiak irudikatzen du bere barneko egon ezina. Bizimodu hobe baten ametsak lausotu ahala, zinikoago bilakatuz doa eta hala ere aurkitzen du indarra bultzaka jarraitzeko, argiagoa da burubidean eta ziurragoa haserrean. Guk ere sentitzen dugu haren aldaketako mina, bakardadea, herrimina eta ezintasuna. Ikusten dugu Singapur bihurtu zaiola borrero eta irakasle".

Sariaren finalisten artean, How Weik poesia txinatar klasikoa idazten du, Ramasamy Madhayanek poesiaz gain filmak egiten ditu gai ilun eta zailetaz, Menik Sri Suyati indonesiarrak sustrai indiar eta arabiarrak dauzkan *dangdut* estiloko musikak abesten ditu eta Sy Lhen Esposok erotismoa lantzen du bere literaturan: "Jende zuriak egin baldin badezake, zergatik ez dugu guk egin behar?".

Peter Guest kazetariak –bera ere atzerritarra Singapurren– aitortuko du zintzo: "Nire agiriek pribilegio izugarri bat ematen didate. Zuria naiz, unibertsitatean hezia eta halako estatus bat ematen dizun lanbide batean ari dena; horregatik Singapurren etorkina baino gehiago '*expat*' [atzerrira joandako] bat naiz, ez naiz aldi baterako baimenez iritsitako langilea. '*Nomada digitala*' naiz ni. Baina, hala ere, nahi eta nahi ez egiten zaizkit ezagunak partekatzen ditugun esperientziok: urruntasunak eta mugek handitzen duten tristezia, bi lekutan aldi berean bizitzeak dauzkan poz bitxiak".

AMETSAK HILDAKOAN, IDATZI

Singapurrek 5,6 milioi biztanle dauzka, horietatik lau bertako herritarrak eta bertan mugarik gabe bizitzeko baimena daukaten atzerritarrak. Hortik gorako gehienak, 1,4 milioi, atzerritik ekarritako etorkinak. Hauen artean milioi bat langile kalifikaziorik gabeak dira, tar-

SHARON LUM / THE STRAITS TIMES

MOHAMMAD SHARIF UDDIN "NEURE LARRUAN ARROTZ" LIBURU SARITUA AURKEZTEN. POEMA ETA EGUNEROKOZ OSATUTA, "AMETSEN HERIOTZA" DEITZEN DA SARRERAKO SAIAKERA.

tean eraikuntzan ari diren ia 400.000, Bangladesh, India, Myanmar eta Txinatik etorriak, eta etxeko lanetan ari diren 250.000, gehienak emakumeak.

Legez soldata minimorik ezartzen ez duen herrialde honetan, benetan izugarria da profesional kualifikatuen eta eraikuntzan bezala garbiketan, etxeko lanetan eta abar ari diren atzerritarren soldaten arteko arrakala. CNN kateak Deutsche Bank aipatuz iturritzat, erakutsi du Singapurreko batez besteko soldatak 3.077 dolarretan (2.743 eurotan) daudela, baina Bangladesh eta Indiatik ekarritako langileek 400-465 dolar (356-410 euro) kobratzen dituztela.

Populazioaren %17 eta esku-lanaren laurdena osatu arren, langileok erabat itzalean geratzen dira propagandak erakusten duen Singapur distiratsuan eta bertan turista bezala –agian ofizio kualifikatuan ari den senide bat bisitatzera– direnek ere apenas aipatzen dituzten uharte-estatura egindako bidaiaren kontakizunetan. Singapurrera dirutzak gastatu eta zorpetuta iritsi diren langileok han lortu duten ofizio kualifikazio gabearen preso bizi dira, hari lotuta daukate bertan bizitzeko baimena, eta horrek are estuago kateatzen ditu ekarri dituen agentziaren eta laneko ugazabaren kontrolari.

Ohikoak dira lan harremanetako iruzurrak, sorterrian agenteak hamar agindu eta bertan hiru kobratuz isildu beharra, hilabete luzez soldata barik gabe aritzea, ordutegien kontrolik eza, behartuta bizi diren barrakoi edo gelen prezio izugarriak... Horien kontra borrokatzeko tresnarik gabe, singapurtarren begietan langile atzerritarrok betirako dira *temporary*. Baita kontratuak kateatuz familia batek belaunaldi baten ondoren bigarrena osatzea lortuta ere. Kontratuak Singapurren erruki gabeak dira: egin ezazu lan eta ondoren... alde hemendik.

Singapurreko etorkin prekario masaren erdian ari diren idazleon esperientziak gero eta unibertsalagoak dira, dio Guestek. Aldi baterako lana, ofizio klase guztietan, gai orokorra da mundu osoan eta gehiago ugarituko da teknologiaren jauziekin eta populazioen lekualdatzeekin.

Idazle etorkinen lehiaketan fikziozko obren saria Sugiarti Mustiarjok irabazi du, sexu abusuei buruzko pieza batekin eta kazetariari esan dio: "Sortzea da gure modua esateko jendeari bagarela beste zerbait ere, langile etorkinez gain. Badagoela zerbait gehiago lan baimenaren atzean: idazlea, kantaria...". ●

Felix Ibarrondo

FRANTZISKOTARRA PARISEN, ITZAL HANDIKO MUSIKAGILE

> “MUSIKAGILE ASKO ZIZTUAN BIZI DIRA, ETA EZ DAKIT NOLA ASMATZEN DUTEN MUSIKA EGITEN”

Musika garaikideak duen izen ezagunenetakoa da. Ospe handikoa da hemen eta munduan. Oroz gain, Frantzian. Gaztetan, kezkarik franko ibili zuen, frantziskotar eta musikari izan ote zitekeen. Biak izan da, musika sortzeko obsesio handia gorabehera.

MIEL A. ELUSTONDO
ZALDI ERO

Ez dakit elkarrizketa euskaraz egiteko moduan zaren.
Lehengo batean egin nuen bat, euskaraz, baina kostata, ezin dut nire pentsamendua euskarara ekarri. Frantsesa, gaztelania, euskara... Egia esateko, egitekotan, oraintxe ondoena frantsesez egingo nuke, patxadaz. Oñatiarra naiz, eta han geure euskara dugu. Orain, berriz, euskara batua da nagusi bazter guztietan, eta, ni aldiz, kanpoan egon naiz hori egosi izan den bitartean. Asko gustatzen zait euskara entzutea, eta euskaraz berba egitea. Asko. Horixe da nire hizkuntza: euskara. Txikitan, euskaraz egiten genuen, gaztelaniaz ere bai, baina lagunekin-eta, euskaraz. Orain ugertuta daukat euskara. Hemen geldituko banintz, segituan berreskuratuko nuke, seguru nago. Bestalde, ikaragarri pozten nau kalean euskara entzuteak. Lehen baino askoz gehiago entzuten da, Oñatin, Durangon, Bilbon eta denean! Horretan asko aurreratu du euskarak. Garai batean ez zen horrela.

Hala eta ere, behin edo behin esan izan duzu erdaraz egiten dituzun hitzen atzean euskara dagoela.
Bai, bada! Nire hitzen hondoan euskara ageri da. Konturatuta nago horretaz, konturatuta nagoenez. Askotan, euskara baino euskarago da nire gaztelania.

Frantziskotarra zaitugu, “Bake eta on” duzue agur ohikoa.
“Bake eta on”, bai. Asisko Frantziskoren agurra... Ni, ordea, parrokia batean nago Parisen, frantziskotarrik ez dut inguruan. Agur modu hori neurri handian galdu egin dela uste dut.

Frantziskotarra, eta musikagile. Nola asmatu duzu biak uztartzen?
Uztartu... orain arte bai, behintzat. Natural-natural egin dut. Frantziskotarrek oso ireki jokatu dute beti nirekin, aukera guztiak eman dizkidate. 15 urte nituela, nobizio Arantzazun, horixe azaldu nion gure maisuari, aita Leonardo Celayari, bi bokazio nituela, fraidetza eta musika. “Egon lasai, biak uztartu ezinik ez duzu izango zure bizian”, esan zidan. Eta horrela izan da oraindaino. Hala eta ere, musika egitea izan da nire biziaren muina.

Familiatik datorkizu musika zaletasuna. Tradizioa.
Bai. Horrek asko laguntzen du. Esaten zuten 2 urterekin hasi nintzela solfeoan. Aitaita Felix musikaria zen, Oñatiko bandaren zuzendaria. Aita Antonino ere musikari, eta aitaitak utzi zuenean, bera izan zen Oñatiko bandaren zuzendaria. Tradizio handia zekarren musikak gure etxean eta aitarekin hasi nintzen solfeo eta armonia ikasten. Lau anai-arreba ginen, bi neska eta bi mutil. Bi mutilak musikari gara, bi neskak ez. Ignazio, anaia, oso musikari ona da, Oñatiko abesbatzaren eta bandaren zuzendaria.

FORMA, KOHERENTZIA, LOGIKA

"Musika denboran gertatzen da. Eta entzun eran sintesia egitea oso zaila da. Gauza abstraktua da, gainera. Ez dago ezer. Bizitza bera bezalakoa da. Joan doa. Joan da. Soinu bat entzun duzun orduko, joana da. Ez da existitzen. Arreta ikaragarria behar da joandako soinu jakin bat ondoren datozenekin erlazionatzeko, soinuetan batzuei eta besteei batasuna emateko. Horixe dut lantegirik zailena: obrari forma ematea, koherentzia, logika. Momentu ederrak sortzea erraza da. Bestea da zaila".

GARRAIATU

"Lehengo batean gertatu zitzaidana, Richard Straussen azkeneko lideak entzuten. Lehenengoa, batik bat. Hura entzuteak garraiatu egiten zaitu, beste nora edo nora eramaten... Baina horrelako obra gutxi dago musikan".

Zer garrantzi du Arantzazuk zure musikari bidean? Han zinen 10 urterekin.
Inork ez dit horretaz sekula galdetu... Ez nuke jakingo esaten zer garrantzi izan duen, handia izan duela besterik ez. Nire obrarik preziatuenetakoa, esate baterako, Arantzazuri buruzkoa da, Salbatore Mitxelenaren poema: *Zuk zer dezu, Arantzazu! Ames-kabi, erti-leku?*...

Esan nahi dut, etxean aitak erakutsiaz aparte, Arantzazun izan zenituela musika irakasle Marzelino Idoiaga, Jose Iturria, Jose Maria Ibarbia, Estanislao Sudupe...
Horiekin denekin ikasi nuen. Uste dut Marzelino Idoiagarekin hasi nintzela pianoa ikasten Arantzazun. Uste dut. Estanislao Sudupe, berriz, organista trebea zen, ospe handikoa gure artean. Kuban egon zen iraultza garaian, eta gero New Yorkeko San Patrizio katedraleko organo -jotzaile izan zen.

Musikaz ari, Bilbon ikasi zenuen gero, eta Parisen hurrena, 70eko hamarkadaren hasieran.
Juan Cordero Castañosekin ari nintzen Bilbon. Elgoibartarra zen, musika-banda militarraren zuzendaria. Oso musikari ona. Hark bultzatu ninduen Parisera. Hemengo ikasketak eginak nituen, eta joera berriak ikasi nahi nituen. Denbora hartan gal-gal zegoen, irakiten, maila guztietan. Eta musikan ere bai. 68ko maiatzaren giroa bizi-bizirik zegoen oraindik. 1969an joan nintzen, eta sekulako giroa zegoen: ekitaldi mordoa, kontzertuak han eta hemen, emanaldiak nonahi... Orain ez bezala.

Orain ez bezala?
Ni askoz gutxiago irteten naiz orain, baina ez dago orduko kezkarik, jakinguraik, joera berririk. Guk aurrera jo nahi genuen. Orain, berriz, ematen du gazteek ez dutela orduko grinarik. Orain musikan dena da posible, ate guztiak ireki dira, baina sakontasunik ez dagoela iruditzen zait. Hala eta ere, ez nago gazteen gainean hitz egiteko moduan, ez dakit-eta... Dena egin da, eta dena desegin da. Desegin beharra zegoen. Lehengo musikan bertan zegoen gogo hori. XIX. mendean bertan. Ikusgarria da nolako musika egiten zuten Wagnerrek, Richard Straussek

eta gainerakoek. Schoenbergek eta haren ikasleek. Urrats handia egin zuten.

Parisen Max Deutsch, Henry Dutilleux eta Maurice Ohana izan zenituen irakasle, besteak beste. Maurice Ohana konpositorea mugarri duzu.
Niretzat, funtsezkoa izan zen Maurice Ohana. Parisera iritsi eta topo egin genuen. Musikari puru-purua zen. Ez zen edozein. Batzuk eta besteak ezagutzen zituen. Lehengo batean, etxean, Mauriceren liburu bat azaldu zitzaidan: García Lorcaren obra osoak. Hantxe ageri dira *El llanto*-ri (Negarra) bere eskuz egindako oharrak. Liburua guztiz erabilita dago, higatua. Asko lagundu zidan, ondo baino hobeto ulertzen genuen batak bestea, oso harreman intimoak izan nituen Mauricerekin. Eta gitarrarako egin nuen lehen lana ere, *Cristal y piedra* (Kristala eta harria), berak esanda egin nuen. "Gitarrarako? Bizian ez dut horrelakorik pentsatu!".

> ***Inoiz galdetu ere egin didate bizian nor ezagutu nahi izango nukeen, eta nire erantzuna Beethoven da beti***

Baina egin zenuen delako gitarrarako obra.
Nik musika sinfonikoa besterik ez neukan buruan denbora hartan, baina egin nuen gitarrarako hura, eta mundu guztiak jo du harrezkero. Gitarrarako nire lehen lana. Mauriceri esker. Hori, eta beste hainbat gauza. Mauricek benetan ezagutzen zuen musika. Oso gauza gutxirekin bizi zen hura: isats-piano bat, sukalde txiki bat, kamaina, eta kito.

Zeure besoetan hil zen...
Bai, bai...

Zer dela-eta hautatu zenuen musika garaikidea, zer dela-eta ez musika sinfonikoa, adibidez?
Zaude hor! Nik ezin dut egin, egiten dudana besterik. Ni ez naiz aurreratua. Jantzi ere, gaur egun jendea janzten den moduan jantzita nabil. Eta zer dela-eta pintatu zuen Mirok pintatu zuen moduan? Eta zer dela-eta pintatu zuen Picassok pintatu zuen moduan? Eta Van Goghek, bere garaian? Haiek ez zuten pentsatzen aurrekoak edo atzekoak izatea, eta niri ere ez zait inporta atzokoa edo biharkoa izatea, ezta nire musika ez interpretatzea ere. Egin behar dudana egitea da inportantea. Ezin dut besterik egin. Bai, egin nezake bestelako musikarik, musika klasikoa, adibidez, entzule guztiei gustatzeko modukoa, baina musika, izan, hori baino gehiago da. Gauza politak egitea baino askoz sakonagoa da musika.

Zer duzu, bada, musika?
Konpromiso intimo bat, sakona, funtsezkoa, guztiz funtsezkoa. Niretzat, ez dago ezer, musika baino urrutiago dagoenik. Goi-mailako musika, alegia. Ez dago gizakiaren intimitatea musika horrek baino hobeto erretratatzen duenik. Goi-mailako musika, berriz diot. Eta ez dago horrelako askorik. Obra eder asko daude, baina, funtsezkoak, gutxi. Gizateriaren gorena da. Mistikoak aipatzen dira, askotan, baina gorena, mistikaren antzik handiena, abstrakzio artistikoena, musika da, nire kasuan. Margoa ere gauza handia da, baina, azkenean, koadroaren barruan geratzen da pintura. Musika, berriz, barrutik entzuten dugu. Nik notak idazten ditut, baina entzuleak bizi egiten ditu, barrutik bizi, inolako hesirik gabe.

Zein jarrera behar du entzuleak zure musika bereganatzeko?
Gakoa da hori! Bilbon, esate baterako, oso entzule leiala dago. Arreta handia jartzen du. Hala eta ere, entzuleari klabeak eman behar zaizkiola uste dut, arreta zeri eman adierazi, lagundu. Musikak eboluzionatu egin du, eta entzuleak ere kultura pixka bat behar du hartaz jabetzeko. Batzuetan, entzuleak bere barrua ireki behar duela esaten dut, baina konturatuta nago hori baino konplexuagoa dela gauza, entzuleari lagundu egin behar zaiola. Ezin da entzulea haize-zirimolaren erdian utzi.

Musika emanaldien inguruko itxurakeria kritikatu duzu inoiz. Modak eta beste.
Munduzalekeria handia dago. Hala eta ere, entzule leialik ere badago. Bilbokoa, adibidez. Oso leiala, eta arretatsua. Zenbait jende jarrera horrekin doa, poliki-poliki bere burua heziz. Horrek asko balio du. Ez, ordea, jendetza handi hori, halako edo halako emanaldira joateko ia-ia obligazioa duena, garaiak agintzen duelako.

Felix Ibarrondo Ugarte

1943, OÑATI

Frantziskotarra, musikagilea. Frantziako Nanterre barrutiko Asnieres-sur-Seine herriko parrokoa da. Filosofia eta Teologia ikasketekin batera, pianoa eta konposizioa landu zituen Donostiako eta Bilboko kontserbatorioetan. Duela 50 urte abiatu zen Parisera. Hainbat obra idatzia da eta horietarik asko *Barne Hegoak* lan berrian bildu ditu. Hainbat sari jasoa da. Horietan azkena, Arte Ederretako Urrezko Domina, iazko abenduan Espainiako Ministro Kontseiluak emana. Obra oparoa du, eta itzal handieneko talde eta interpreteek jo dute bere musika.

Zer harreman dago musikagilearen eta interpretearen artean?
Erabateko lotura. Interpretea da dena. Ni haiekin nago, ehuneko ehun. Hainbat obra grabatu ditut, eta, beti, haiekin batera egin dut lan. Oso exigentea naiz, haiekin egon nahi izaten dut, interes handia dut horretan. Are gehiago, batzuetan, nire musika jotzen zuten kontzertuetara joateri utzi diot, nola joko zuten ez nekielako, edo emanaldia prestatzera etorri ez zaizkidalako. Inork nire musika jo behar badu, ehuneko ehun nire musika izan dadin nahi izaten dut. Ez hurbilpen bat. Bestela, nire musika ez da jotzen zaila. Barneko zailtasuna du.

Barneko zailtasuna?
Nire notak, berez, ez dira zailak. Hala eta ere, notei ematen zaien esanahia... zailagoa da. Horregatik daukat interprete talde bat, nire musika behar den moduan jotzeko. Oraintxe, txistu elkarte batekin ari naiz elkarlanean. Txisturako obrak ematen dizkiet, eta behar bezala ulertzen eta interpretatzen dituzte. Interpretearekiko harremana oinarri-oinarrizkoa zait, bera da nire musikaren bideratzailea, transmisorea.

Nor duzu musikari nahiena?
Beethoven. Chopin ere ikaragarria da, haren obra ikusi besterik ez dago. Baina Beethovenengandik hurrago nago. Hark musikarekiko duen jarrera, eta nik dudana, berbera dira, modu askotara. Inoiz galdetu ere egin didate bizian nor ezagutu nahi izango nukeen, eta nire erantzuna "Beethoven" da beti. Beethoven, inor baino gehiago. Haren bizitza ezagutu nahiko nukeen, Maurice Ohanarena ezagutu nuen moduan. Askotan galdetzen diot nire buruari, zein barne-mundu ote zuen Beethovenek, nola egin ote zuen tamaina horretako obra, nola bizi ote zen... Jakina, bizi, ni orain arte bizi izan naizen bezala bizi izan zen Beethoven.

Zer esan nahi duzu, zu orain arte bizi izan zaren bezala bizi izan zela Beethoven?
Bere baitara bildua bizi izan zela, sortzeari guztiz emana... Haren sinfonietan badira momentu batzuk, ikaragarriak. Bosgarren sinfonia, zazpigarrena, hirugarrena... Horiek egin ahal izateko barruko potentzia ikaragarria behar da, ikaragarria. Ez dut haren mailakorik ikusten, Bach ezik. Eta beste gauza bat esango dizut: adinarekin, lehen baino askoz barrurago sartzen naiz haien musikan. Orain, nire bizi-eskarmentuarekin, haien obrak entzun eta askoz aurkikuntza handiagoak egiten ditut. Lehen, askoz entzunaldi axalagoak egiten nituen.

Sortzea, obsesio izatea irits liteke?
Sortzea obsesioa da, erabat. Egun osoa horretan. Horixe da hitza: obsesioa. Guztizko bizitza da.

Zer dago musikatik hara, musika eta gero?
Heriotza. Horrela da... Musikagile asko ezagutzen ditut, ziztuan bizi dira, munduari erabat lotuak, eta ez dakit nola asmatzen duten musika egiten. Ni, aldiz, musikan sartuta bizi naiz gau eta egun. Beste batzuk, berriz, handik hona dabiltza gelditu gabe, eta musika ere idazten; asko idazten, gainera. Trenean ere idazten omen dute musika. Niri ezinezkoa zait hori. Nik, musika idatziko badut, bakarrik egon behar dut, bakar-bakar-bakarrik.

> ***Jendetza handi hori... halako edo halako emanaldira joateko ia-ia obligazioa duena, garaiak agintzen duelako***

"Bakar-bakar-bakarrik".
Egun osoan pianoaren aurrean egon behar dut. Jotzen, idazten, baina pianoaren aurrean jarrita egun osoa. Batzuek, mahai gainean idazten dutela diote, baina ez dakit bada, nik, nola idatz litekeen musika, entzun gabe, soinua inguratzen duen guztia entzun gabe. Egin liteke, nonbait. Nork bere modura egiten du lan, nonbait.

"Musika, bizitza-konpromisoa da", inoiz esana duzunez. Zer esan nahi du?
Musikarekin konprometituta bizi naizela, has eta buru. Egiten dudana egiten dut, inori ekarririk egiten diodan, edo ez, begiratu gabe. Horretan guztiz neurekoia naiz. Nire obrak interpreta ditzaten gustatzen zait, baina hori ez da funtsezkoa, musika egiten jardutea besterik. Neurekoi hutsa naiz horretan. ●



Paradoxa bilbotarra

KARMELO LANDA
HISTORIALARIA

Politologo adituen esanetan, nazio batek ezin dezake berezko nortasunik finkatu, harik eta nazio horren hiriburu edo metropoliak nazio nortasun propioari tinko eusten dion arte.

Gai honen harira, irakurri berri dut Jon Maya dantzari eta koreografo ezagunari egindako elkarrizketa mamitsua *Gara*-n, eta beste gauza interesgarri askoren artean, zera dio Jon Mayak, hemengo kultur proiektuen gabeziaz: "Herri bat artikulatzeaz ari bagara, kultur proiektuak ere mahai gainean jarri behar dira".

Zein da, orduan, gure herrirako, edo Bilbotik hasita, gure ziutaterako agintariek proposatzen diguten kultur proiektua?

Neuk ere hori aztertzeari ekin diot azkenaldian, eta udal hauteskundeen zurrunbiloan bederen, espero nuen gai honen inguruan argitasun zabalagorik eskaintzea alkategaiek, eta bereziki agintean jarraitzeko asmotan dabilenak.

Hamar konpromiso hartu ditu Bilboko alkate denak hurrengo legealdira begira, eta kulturari dagozkionak ez daude lehentasunen artean, hain zuzen ere; zortzi eta bederatzi puntuetan hartzen dituen konpromisoak omen arlo honi begirakoak: nazioarteko ekitaldi handiak erakartzea, eta "hiri moderno honetan euskara gehiago entzun eta euskaraz gehiago egin dadin" asmo-agertze lausoa, zehaztasun gehiagorik gabea.

Bilbok orain duen alkatetzak badaki, ordea, beste arlo batzuetan proiektu zehatzak elikatzen, turismoaren eremuan, adibidez. Bilbon halakoetara ohituta gauden arren, aztoratu ere egin nau egunotan bertoko Turismo Bulego nagusian aurkitu dudan informazio batek: udalak eta enpresa pribatu indartsuek babesten duten aldizkari dotore baten irakurri baitut *Bilbao Essential* titulodun aldizkari berezia argitara eman dutela japonieraz, 212 orrialdetan Japonia urruneko turista kutiziatuei Bilbo bisitatzeko gonbidapena luzatzen diena. Ekialde urruneko irlako 200 puntutan banatuko dira doan luxuzko aldizkari ongi ilustratuaren aleak, Tokio, Osaka eta Niigata lehenetsiz. Edukiaz, zera adierazi dute aldizkariaren aurkezpenean: Bilbon bizi daitezkeen "top esperientziak" azaldu dituztela bertan, eta argitasunak eman nahian, gastronomia, museoak eta erosketak aipatzen dira top horien barruan.

Bilbok orain duen alkatetzak badaki beste arlo batzuetan proiektu zehatzak elikatzen, turismoaren eremuan, adibidez. Bilbon halakoetara ohituta gauden arren, aztoratu ere egin nau egunotan bertoko Turismo Bulego nagusian aurkitu dudan informazio batek

Hori guztia irakurri eta berehala etorri zait, lehenago ere izango zela, Japonian bertan, gure Botxo honetara etorri asmo zuten turistentzako informazio zuzen eta agian apalagorik, sarri ikusi baititugu, Zazpi Kaleetan kasurako, oinezko turista japoniarrak, argazki kamerez ondo hornituta, hara eta hona etengabe mugitzen. Baita gastronomiaren arloan ere, izango dira japonieraz, oinezko turista ibiltarien mailako gidak. Ez dut ahaztekoa Zazpi Kale hauetako taberna txiki ezagunean ikusi nuenekoa japoniar bikote gaztea, poltsikotik koaderno txikia atera eta barrako kamarero harrituari apuntea erakutsiz, "txipiroiak saltsa beltzean" eta "barraskiloak bizkaiko saltsan" eskatu eta, eskuak ondo koipetuz eta inguruak zipriztinduz, gogotsu guztion aurrean, ez jan baizik tragatu egin zituztenekoa.

Ze premia zeukan, orduan, Bilboko aginte gorenak era horretako luxuzko gonbidapen hutsal ziztrinak ekialde urrun hartara bidaltzeko? Zer pentsatu behar dute gutaz Japonia urrunean hori ikustean, han bertan ere nortasunaren eta uniformizazio globalaren talka modu bortitzean pairatzen ari direnean? Hurrengo baten Guggenheimen atarian edo "urrezko moda" dendatan aurkitzen dudan lehen japoniar aberastuari galdetuko diot. ●

Bidaiari klandestinoak

PAULA ESTÉVEZ

BEA SALABERRI
IRAKASLEA

BAM hirigunean zenbat Yoga zentro irekitzen diren ikusiz, gogora jin zait aurreko zutabeko gizarte likidoaren ideia. Hain zuzen, joera horren lekuko ona zait yoga egituren sortzea, onddoak bezala: bakoitza chakrak lerrokatzera eta irekitzera doa, energia txarra eta parasitoa den bizi arrunteko kezka oro uxatuz.

90eko hamarkadakoa da kontzeptuaren definizioetarik bat; Zygmunt Bauman soziologoari zor diogu. Honen arabera gizartea gero eta gutxiago engaiatzen eta egituratzen da. Identitatea, kausitze soziala bezala, norbera hautuen menpe da; kontsumoa, erosotasuna eta askatasun pertsonala zentralak bihurtzen dira, mugimendu kolektiboetarako joera mendratzen. Flexibilitatea du oinarri eta modernitatea beharrezkotzat jotzen badu ere, ez omen du honen potentzial kolektiboa ustiatzen. Gizarte solidoaren kontrako gisa dator, hura egitura komun eta iraunkorretan garatzen baita. Kontzeptua lehenagotik aipatu zuten batzuek, gehiengo isila eta gutxiengo ekilearen bitartez, edo, bidaiari klandestinoa delakoaren bidez: azken hauek baliatzen dira gizartearen lorpenez, adibidez sindikatuenez, deus inbertitu gabe, ez denborarik, ez dirurik, horrela bizkarroiaren egoera hobetuz doa parte hartu gabe, besteekin batera sufritu gabe. Hauen ondorio da *likiditateari* lotu postura: inbertitzen denean zerbait, nahia bada inbertituaren errekuperatzeko, horretarako posibilitatea ukateko, noiznahi engaiamendutik libratzeko, agian etekin pertsonala eginez.

Azken urteetan, sare sozialen bidez bizitzeko joera dugu. Giza harremanak hazta ezinak direla, jendearekin sekulan zuzenean trukatu gabe, erraza da ageraraztea 140 karaktereko iritzia, partekatzea Facebook-en malurra eta posizio politikoa, ondokoari *datsegit* sakatzea eta beste zerbaitera pasatzea. Egunkarietako analisiak ez ditu gehiago inork irakurtzen: hiru zutabe eta erdi, aizu, zertarako ba, twitterren hiru lerrotan jakiten ahal badira gauzak?

Gisa berean, egitura anitzetan aipatzen da "segidarik eza" desagertze arrazoitzat. Azken urtebetean, EHZ, Müsikaren Egüna edo Lapurtarren Biltzarraren kasua da. Azken hau dela eta, Biltzarra desagertu zen urte berean, 150 bat herritar mobilizatu ziren kabalkada muntatzeko: bitxikeria edo kontra errana dirudi (azalpena izan daiteke epe motza zuela?).

Aspalditik, elkarteetako batzarretan parte-hartzeak behera egiten du, eztabaidarik ez omen da gertatzen: diotenez interes taldeek aitzina egiten dute beste batzuk baztertuz, baina kontrabotereen eratzerik ez ote da posible?

Politikari doakionez, alderdiek hauteskundeetatik kanpo zilo beltzean itorik dirudite. Bide horretatik, Emmanuel Macron %60ko abstentzioarekin, hau da, bidaiari-klandestino tasa ikaragarriarekin, hautatu zen. Harago, sindikatuetan ez du gehiago nehork kartarik hartzen.

Bestalde, langileek ez dute egiturarekiko identifikaziorik garatzen, ordaindua zaien lanaldiaren betetzera doaz, ekoizle jarreran, denboraldi eta misio batekin. Nola egin daiteke aitzina, euskalgintzan adibidez, jarrera langile *lambda* batena bada *lambda* ez den erronkaren aitzinean?

Nihaurek, hementxe, ekarpen gutxi egin diot *peñari*, soluziorik ez baitzait gogoratzen. Milaka jendetako mobilizazioak, arratsalde batekoak, engaiamendu puntualak, astebetekoak, kasurik hoberenean hilabete parekoak, egonen dira. Baina egitura eta kohesiorik gabe, altxatuko da epe luzeko egitasmoen garatzearen arazoa. Arlo kulturalean, sortu eta transmititzeko garai eta leku berriak eskastuko dira. Modernitatearen kontra izan gabe, dena aldakorra bada eta menturazkoa, etikak irauteko bideak asmatzekoak ditu. ●

Berriago eta handiago

ANUNTXI ARANA
ANTROPOLOGOA

Ez da nobedadea, *Homo* omen *sapiens*-ak gero eta gehiago ustiatzen duen mundu hau gero eta txikiago zaigu. Lau egun jai eta Eskandinaviaraino!, zergarik gabeko kerosenoari esker. Bestela, toki jator exotikoak aukeratuko ditu euskaldun jatorrak bere oporretarako. Aldizkari honetan, martxoan, "turismoa *solidario*-jasangarria" aipatu zuen Pello Zubiriak, eta ametsa dela ulertu nuen, lau orriko hirusta. Esakune zelebre batez oroitzekoa: turismogintzaren funtsa dela beren etxean hobekiago leudeken jendeak eramatea haiek gabe hobeki egongo liratekeen lekuetara.

Klimaren bilakaeraz kezkaturik manifestatzen hasi diren gazte batzuek hegazkina ez dutela hartuko aldarrikatu dute. Baina bost axola agintariei gazteen solas lasaiak. Ez bakarrik goi agintariei: hemen, agorrilean Biarritzera ekarriko duten G7ari ongi etorri ematen dio Euskal Herriko Garapen Kontseiluak; bitartean, berdez garbitu eta *Klima foro* bat antolatu du.

Plastiko zaku batzuk kendu dizkigute, zerbait da. Aldiz, askoz gehiago dira onartzen dituzten debaldeko bilgarriak: libra erdi leka polistireno plateran; sakapunta bat 10 cm blisterrean. Denda ekologiko batzuetan berdin, perfumeria dirudite, apalak pote txikiz beteak, bakoitzean 100 gr konpota, kartoi artistikoz berrestaliak. ATTAC elkarteak *dégage l'emballage* (utikan bilgarriak!) ekintzak antolatzen zituen antzina, erositakoen bilgarriak supermerkatuko atean lagatzeko; berrikitan Bizi!-k egin du. Eta urteak horrela, eta drama pertsonalak, kapsulez dabilen kafetera oparitzen dizutenean. Gero, barre ere egiten da, entzuten denean urliak, ura alferrik ez xahutzeko, zapitxo umelak erabiltzen dituela etxea txukuntzeko.

Aldizkariak, oso aspaldi ez da, paperezko faja minimalistan bilduta heldu ziren etxera onik eta osorik, denak plastikoan sartu arte. Azken erresistenteak ere, *Herria* astekariak, amore eman zuen… Zorionez atzera egin du berrikitan! Kazeten itxuraldaketak barruan ere gertatu dira: argazkiak gero eta handiagoak, *couché* paperean ederrik inprimatuak. Hargatik, ez dute informazio gehiago ekartzen, jadanik saturatuak garenean irudi dotore deigarriez; gainera, holako dirdiran testuak irakurtzeko, hobe dugu eguzki betaurrekoak jantzirik. Eta beti paper gehiago eta ingurumen-inpaktu areago.

Nola atxiki korronteari kontra, atzean geratzeko irudipena izan gabe? Batek daki, *Berritu ala hil* baita konsigna, berdin zaharra baino txarragoa denean berria. ●

Gure parpaila hautsiak

BEÑAT SARASOLA
IDAZLEA

Posmodernitatearen seme-alabak omen gara, baina, halere, sarri izaten dugu iragana brotxa lodiz epaitu eta orainaldia ezein pasatako denbora baino moralki aurreratuagoa dela aldarrikatzeko tentazioa. Biolentzia matxista dela eta, esaterako, egungo estatistika eskandaluzkoak jartzen dizkigutelarik begien aurrean, berehala egin ohi dugu azpimarra: kontua da lehen ez zirela kontabilizatzen, besterik gabe onartzen zen biolentzia domestikoa zen.

XIX. mendeko idazle espainiar handienetakoa dugu Emilia Pardo Bazán, eta aski da bere kontakizunetako ugari irakurtzea ulertzeko biolentzia matxista ez dela izan atzo goizera arte denek txintik esan gabe onartua-pairatua-onetsia izan den zerbait. Pardo-Bazánek ez du bere ipuinetan salaketa espliziturik egiten; aitzitik, bere poetika errealista-naturalistak eskatzen dionari jarraiki, garaiko gizartearen eguneroko biolentzia erretratatzen du galbaherik gabe, gordintasun osoz. Emaitza, edozein salaketa baino indartsuagoa (eta eraginkorragoa, esango nuke) da. Inori interesatuko balio, berriki argitaratu du *Contraseña* argitaletxeak gaiaren bueltako bere ipuinen antologia argigarri bat: *El encaje roto: antología de cuentos de violencia contra las mujeres.* ●

Homomonument

IMANOL ALVAREZ
IRAKASLE OHIA

Holandako LGBT mugimenduak bultzaturik, 1987an inauguratu zen Amsterdamen *Homomonument* izeneko oroigarria, nahiagotasun sexualagatik jazarpena jasan duten gay-trans-lesbianen omenez. Naziek kontzentrazio-esparruetan ustezko homosexualak markatzeko erabiltzen zuten hiruki arrosa du oinarri. Hiruki arrosa da gaur ere mundu osoko LGBT mugimenduaren ikurretako bat, ortzadarraren ikurrina baino borrokalariagoa ere badena, nolabait esatearren.

Harrez geroztik, munduko beste hainbat lekutan eraiki dira antzeko oroigarriak. Euskal Herrian ere badago horrelako bat, nahiz eta ez izan oso ezaguna. Esango nuke euskal lesbiana-gay-trans eta abar askok jakin ere ez dakiela, neurri handian medioek ez ziotelako behar besteko oihartzunik eman.

Orain hamar urte, 2009ko maiatzaren 16an inauguratu zen Durangon, Landako eremuan, *Gay Oroitarria*. Bertan jartzea erabaki genuen gehienbat Liburu eta Disko Azokaren baitan sortu zelako 1976an euskal LGBT mugimendua izango zena gauzatzearen asmoa. Koldobika Jauregik eginiko *Kantu Isila* granitozko eskultura da, eta plaka batean Jon Maiak idatziriko bertsoa dauka. EHGAMek nahi izan zituen omendu modu horretan frankismo-garaiko "beste biktimak", beti ahaztuak izan direnak; hots, euren maitatzeko modu diferenteagatik atxilotuak edo fusilatuak izan ziren haiek. Ekitaldian, Jon Maia bertsolariarekin batera, Jaurlaritzako Gizarte Arazoetako sailburu Gemma Zabaletak, Durangoko alkateorde Marijo Balierrek, Martxelo Alvarez Ahaztuak elkarteko ordezkariak eta nik neuk egin genuen berba. Hamar urte baino ez dira pasatu, baina zenbait ñabardura direla-eta ematen du askoz denbora gehiago iragan dena. Adibidez, *gay* deitu genion. Gaur egun ziur asko *LGBT Oroigarria* esango genion. *Gay* hitza irekiagoa zen orduan nonbait.

Koldobika Jauregik eginiko *Kantu Isila* granitozko eskultura da, eta plaka batean Jon Maiak idatziriko bertsoa dauka. EHGAMek nahi izan zituen omendu modu horretan frankismo-garaiko "beste biktimak", beti ahaztuak izan direnak

Durangoko oroigarriak denbora pasatze horren ondorioak nozitu ditu, eta txukuntzea behar du. Alkateak horretan ari direla ziurtatu digu. Stonewalleko LGTBaren aldeko jendea poliziaren kontrako oldartu zeneko 50. urteurrena ospatzen dugun urtean, memoriaz hitz eta pitz gabiltzan honetan, nahi genuke beste ekitalditxo bat egin laster bertan, garrantzikoa baiteritzogu berriro ere biktima horiek ez ahazteari.

Amaiera modura, hona Jon Maiaren bertsoa: Frankismoaren aro beltzean, sexuen askatasuna/defendatuaz koloreztatu zenuten etorkizuna/Zokoratua izan zen zuen kontzientzia, gaytasuna/ Bihotz haragiz pairatu arren plazera eta maitasuna/ gure oinarri sendo da zuen harrizko duintasuna/. ●

bat
Soziolinguistika aldizkaria
HIZKUNTZA NORMALKUNTZA ETA GLOTOPOLITIKA ALDIZKARIA

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA.
Martin Ugalde K.P. / 20140 - ANDOAIN
kluster@soziolinguistika.eus
bat.aldizkaria@soziolinguistika.eus
http://www.soziolinguistika.eus/bat

BAT 110: ARNASGUNEAK. ETORKIZUNEKO ERRONKAK

BELEN URANGA: Hitzaurre gisa.

MIKEL ZALBIDE: Arnasguneak. Etorkizuneko erronkak.

KIKE AMONARRIZ: Arnasguneak. Zer ziren, zer dira eta zer izango ote dira? Arnasguneen inguruko sarrera autobiografikoa.

XABIER BENGOETXEA: "Arnasguneak. Etorkizuneko erronkak" aurkezpenari iruzkinak.

IÑAKI IURREBASO: Hego Euskal Herriko Arnasguneak zenbatzen. Arnasguneen operatibizazioaren inguruko ekarpena.

LIONEL JOLY: Arnasguneen eta RLS-en etorkizuneko erronkak nagusiak.

MIKEL ZALBIDE: Arnasguneen hauspoa: saio-amaierako zenbait ohar.

Ø200

SLOW · KAFETEGIA

BERTAKOA · GARAIKOA · EKOLOGIKOA
GEUK PRESTATUA · ERANTZUKIZUN SOZIALA

Altuna baserria · Arrillaga Txiki baserria · Basatxerri · Behieko Sabekoetxea · Biok gazta
Bodegas Lezaun · Carlos Petrina · El Alcaraván · Ertxieko · Euskal Herria Esnea
Euskal Untxia · Goi Eko Haragia · Karabeleko · Goiti okindegia · Gumendi
Larreta Esnekiak · Lur Lan · Lurrarte · Mahala · Nabarreko · Orexa gazta
Pikunieta baserria · The Loaf · Tolosako Merkatua · Urrullo agroaldea · Zalmendi

---

ORDUTEGIA | Astelehenetik ostiralera | KAFETEGIA 07:00-17:00 | JATETXEA 12:30-15:20
Hernani, Gipuzkoa | 943 265 022 | www.diametro200.com

Gipuzkoako zaharren egoitzak greban
Bi urte hitzarmenik gabe

62 greba egun egin dituzte 2018ko irailean hasi zirenez geroztik. Gipuzkoako egoitzetan eta eguneko zentroetan lan egiten duten gerokultoreak, erizainak eta garbitzaileak dira. 5.000 langile dira sektorean, ia denak emakumeak. Soldata arrakala gainditzea eskatzen dute. Kale garbitzaileen soldatarekin alderatu dute beraiena eta %30 gutxiago jasotzen dute urtean, 6.000 euro, alegia.

ONINTZA IRURETA AZKUNE

GORKA RUBIO / FOKU

Grebalarien eskaerak

Hastapen-akordioa ELAren (ordezkaritzaren %60) eta patronalaren gehiengoaren (Adegi eta Matia 2020) artean adostu zen 2018 bukaeran, negoziazio mahaitik kanpo. Aurre-akordioaren arabera ondokoak dira Gipuzkoako sektore osoari eragingo lioketen hobekuntzak:

1. Bi esparruetako hitzarmenen sinadura: Gipuzkoako sektore hitzarmena sinatzea batetik eta ELA sindikatuak hainbat egoitzatan lortuak dituen enpresa hitzarmenak mantentzea bestetik.
2. Hitzarmenak 2017 eta 2020 arteko balioa izatea.
3. Soldata igoera kontsumoko prezioen indizea gehi %8 izatea, lau urtetan ezartzeko.
4. Antzinatasunagatik 42 euroko igoera, 2021erako lortzeko.
5. Igande eta jaiegunetan 45 euroko igoera, 2021erako lortzeko.
6. Norberaren eginbeharretarako, jardunaldi barruan, hiru egun izatea. 2021erako lortzeko.
7. 20 minutuko atseden ordaindua, 2020rako.
8. Sei urteko eszedentzia umeak 10 urte egin arte, eta bost urtekoa langileak menpekoren bat badu bere kargu.
9. Lanaldi murrizketa umeak 15 urte bete arte.
10. Lanaldi osoko lanpostuak eta kontratu mugagabeak.

ELAren ustez, aurre-akordioak Gipuzkoako Foru Aldundiaren oniritzia nahikoa zuen gero negoziazio mahaian hitzarmena sinatzeko patronalekin. Foru Aldundiak ez du onartu aurre-akordiorik dagoenik eta patronalak (Adegi eta Matia 2020) adierazi du ez duela hitzarmenik sinatu. ELAk erantzun du esanez izenpetutako agiririk ez, baina patronalaren adostasuna adierazten duen testua badagoela eta horren frogak badituela sindikatuak.

GORKA RUBIO / FOKU

SINDIKATUEN ORDEZKARITZAK. ELAk %60ko ordezkaritza dauka, LABek %20koa eta CCOO eta UGTk gainerako %20koa.

Bizkaian 2016ko martxoan hasi eta 2017ko hondarrean bukatu zen greba luzearen antza du Gipuzkoako egoitzetako langileenak. Sektore bereko langileak atera ziren kalera Bizkaian eta gatazka sakon aztertzen hasiz gero ezaugarri berberak agertuko zaizkigu.

Ia langile guztiak emakumeak dira eta emakume izateagatik baldintza prekarioetan ari dira lanean, hasi soldatatik eta neke fisiko eta psikologikoraino. Egoitzetan eta eguneko zentroetan adinekoak zaintzen dituzte, menpekotasun handia duten pertsonak. Gaur arte (eta oraindik ere bai) emakumeen arduratzat jo dira zaintza lanak, eta doan egin dituzte. Poliki-poliki zaintza lanak ordaintzen hasi dira, baina emakumeek jarraitu dute lan horiek egiten. Prestigiorik gabeko lanak dira, ikusezinak, eta gaizki ordainduak.

Gipuzkoako gatazkan %60ko ordezkaritza duen ELA sindikatuak alderaketa-ariketa egin du ondoko helburuarekin: gizarteari ikusaraztea, era praktikoan, gizon eta emakumeen lanpostuen arteko aldeak nolakoak diren. Sindikatuak soldata arrakala erakutsi du, kale garbitzaileen eta egoitzetako langileen sektoreko soldatak alderatuta. Ikasketa maila antzekoa izanda eta lan-ordu kopuru bera eginda, kale garbitzaileek, ia denak gizonak, emakumeak baino 6.000 euro gehiago kobratzen dituzte urtean. Idoia Elustondo ELA sindikatuan Gipuzkoako egoitzetako arduraduna da eta soldata arrakala erakusteko eman digu adibide hau, eta galdera bat proposatu du gogoetarako: "Nire galdera da ea zer den garrantzitsuagoa, kaleak garbitzea ala menpeko diren pertsonak zaintzea".

2029an Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleriaren ia herenak (596.000 pertsona) 65 urte baino gehiago izango ditu. Mugimendu feministak batez ere azken bi urteotan aldarrikatu du zaintzak gure bizitzen erdigunean egon beharko lukeela eta horretarako gizarte eredua aldatu behar dela. Mugimendu feministari kasu egin ala ez, zaintzak bai ala bai hartuko du garrantzia, besterik ez bada ere populazioa zahartzen ari delako.

Beste gauza bat da zaintza nola kudeatzen den. Gipuzkoako egoitzen sektorea Bizkaikoaren tankeran kudeatzen da. Foru Aldundiaren ardura da adinekoen zaintza. Erakunde publikoak azpikontratatuta dauka zerbitzuaren %90. Adegi, Matia 2020, Lares eta Garen dira egoitzak kudeatzen ari direnak. Pribatizazioak zer dakarren oso ondo dakite langileek. Aitziber Aranberri usurbildarra Donostiako Villa Sacramento egoitzako langilea eta ELAko ordezkari sindikala da. Ondokoa esan zuen duela gutxi egoitzetako gatazkaz Argiak antolatu zuen hitzaldian: "Hamabi urtetan hiru enpresa ezagutu ditut, saldu egiten gaituzte, eta aldaketa bakoitzean murrizketak datoz. Zerbitzu publikoa eskaintzen dugu, baina enpresa pribatuak ari dira kudeatzen, eta enpresak diru etekina bilatzen du. Gure sentsazioa da Diputazioak ez duela kudeaketaren inongo jarraipenik egiten. Greba egunetan bai, orduan axola zaiena egoiliarren ongizatea da, baina greban ez gaudenean zer? Ez gara iristen, jende gutxi gaude denak ongi artatzeko, eta orduan Foru Aldundiari ez zaio batere axola?".

Langileek abandonu sentsazioa dute orokorrean, eta salatu dute gatazka ga-

Egunean 92 minutuz daude langileak egoiliarrekin

Bizkaiko zaharren egoitzetako grebalarien aldarrikapen berak errepikatzen dira Gipuzkoan ere. Lan baldintza hobeak nahi dituzte, eta era berean, egoiliarrak hobeto eta denbora gehiagoz zaintzeko modua izatea eskatzen dute. Bestela esanda, soldata duina irabazi, eta korridorean batera eta bestera lasterka ibiltzeari utzi nahi diote, ratioak handitzea nahi dute, egoiliar bakoitzeko lan-esku gehiago izatea, alegia. Beharginen lan karga gehiegizkoak bi ondorio ditu: egoiliarrei ematen zaien arreta kalitate kaskarragokoa da eta langileek neke fisiko eta psikologiko handia nozitzen dute.

ELA sindikatuak Hego Euskal Herriko egoitzetako kalkuluak atera ditu. Langilea egoiliarrekin eguneko zenbat denboraz egoten den neurtu du. Denbora horretan egiten diren lanak zenbatu dira: garbiketak, komunera eramatea, jaten ematea, orraztea, bizarra kentzea, oheratzea, eta abar luzea. Egoitzaren erabiltzailea gutxienez bi orduz artatzeko proposamena egin du sindikatuak eta horretarako zenbat lan-ordu gehitu beharko liratekeen kalkulatu du:

Herrialdea	Gaur egun zaintza denbora pertsonako	Gutxieneko aldarrikapena
Gipuzkoa	**92 minutu eguneko**	**%30 lan-ordu gehitzea**
Bizkaia	**60 minutu eguneko**	**%100 lan-ordu gehitzea**
Araba	**88 minutu eguneko**	**%41 lan-ordu gehitzea**
Nafarroa	**88 minutu eguneko**	**%41 lan-ordu gehitzea**

Langile kategorien arabera	Gutxieneko aldarrikapena
Zaintzailea	**Bi ordu pertsonako egunean**
Erizaina	**Eguneko 24 orduetan**
Garbitzailea	**%53 gehitzea**
Sukaldaria	**bat 50 egoiliarrentzat**

raian erakunde publikoek betiko leloa errepikatu dutela: enpresak eta langileek konpondu behar dituztela arazoak, Foru Aldundiak ez daukala zerikusirik horretan. Honela labur daitezke gaur egungo zaintza ereduaren itogin nagusiak: etekinak azpikontratatutako enpresentzat dira, Foru Aldundiak bere ardurei ihes egiten die, eta galtzaileak zaintzaileak eta zainduak dira.

BI URTEREN ONDOREN KORAPILOA ASKATU EZINIK

ELA sindikatuak %60ko ordezkaritza du gatazkan eta LABek %20koa. Bakoitza bere aldetik ari da protestak bideratzen. Une honetan, negoziazio mahaian, LAB, UGT eta CCOO daude. ELAk utzia du mahaia, inolako aurrerapausorik ez dagoela argudiatuta. Negoziazio mahaia biltzeko hurrengo data uztailaren 12a da.

Gehiengoa duen sindikatuaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko harremana azken bi urteetan egon den egoerarik okerrenean dago. Sindikatuak aurrekaririk gabeko erasotzat jo du 2018ko hondarrean gertatutakoa. ELAk 2018ko martxoan iragarri zuen irailean greba hasiko zutela langileek. Ordurako negoziazio mahaitik alde egin da zegoen sindikatua eta dioenez, Foru Aldundiaren oniritzia zeukan mahaiz kanpo patronalekin aurre-akordioa lortzen saiatzeko. ELAk dio Adegirekin eta Matia 2020rekin (patronala bi horiek eta Garen eta Laresek osatzen dute) lortu zuela aurre-akordioa 2018ko abenduan eta horren berri eman ziola Foru Aldundiari. Sindikatuaren esanetan, Diputazioak aurre-akordioan adostutakoa finantzatzeari uko egin zion. Salatu du Diputazioak aurre-akordioa dagoenik ukatu duela, ELAren alde bakarreko proposamena izan dela, alegia. Aurrekaririk gabeko erasoa dela dio Idoia Elustondok: "Gauza bat da esatea ez duzula akordioa finantzatuko, baina guretzat larriena da gezurretan aritzea, esatea ez dugula aurre-akordiorik sinatu. Dokumentua faltsifikatu zuten. ELA gizartearen aurrean gezurtitzat aurkeztu dute. EAJk hordagoa jo digu. Bizkaiko gatazkan sentsazio gazi-gozoa izan zuten eta ez dute nahi Gipuzkoan halako garaipenik izaterik. Maite Peñak [Gizarte Politikako diputatuak] esan zigun hau ez dela Bizkaia II izango".

> ***"Greba egunetan bai, Foru Aldundiari egoiliarren ongizatea axola zaio, baina greban ez gaudenean zer? Ez gara iristen, jende gutxi gaude denak ongi artatzeko, eta orduan Foru Aldundiari ez zaio batere axola?"***
>
> **AITZIBER ARANBERRI**
> GREBALARIA

2017an hitzarmena berritzea egokitzen zen eta bi urte igarota ez dago ezer. LAB, CCOO eta UGT negoziazio mahaian daude %40ko ordezkaritzarekin. Hiru sindikatuetan mobilizatzen ari den bakarra LAB da. %60 duen sindikatua, ELA, negoziazio mahaitik kanpo dago. ELAko grebalariek 62 greba egun egin dituzte irailetik hona, azkenekoak apirilaren 26tik maiatzaren 10era. Torlojuak estutze aldera eta gizarteari egoeraren berri emateko asmoz maiatzaren 2tik 10era Gipuzkoa osoan kanpaina egin dute. Eskualdez

Negoziazio mahaian sindikatuen ordezkaritzaren %40

Ordezkaritzaren %20 LABek dauka eta CCOO eta UGT-rekin batera negoziazio mahaian jarraitzeko apustua egin dute, ELAk ez bezala. Ane Sarriegik, LABeko Gipuzkoako egoitzetako arduradunak, dio ez dutela ulertzen eta onartzen ELAren jarrera. Patronalak mahaian eskainitakoa onartzeko prest ez daude (soldatak izoztea proposatu du), baina mahaitik altxatzeak zentzurik ez duela dio Sarriegik. ELAk eta patronalaren zati batek (Adegi eta Matia 2020) mahaitik kanpo negoziatzen jarraitu izana salatu du sindikatuak. Gertaera hori da egoitzetako borroka ELArekin batera ez egitearen arrazoietako bat, eta bestea, edukizkoa da. LABek Gipuzkoako sektore hitzarmena lehenesten du, eta ELAk egoitzetan lortuak dituen hitzarmen zehatzak ez ditu jokoan jarri nahi. Aldarrikapen zehatzetara joz, LABek ratioak igotzea lehenesten du; langile gehiagorekin haien osasuna zainduko litzatekeela eta egoiliarrak hobeto artatuak liratekeela azpimarratu du Ane Sarriegik. Gatazkaren ardura nagusia Gipuzkoako Foru Aldundiak duela dio Sarriegik , "zerbitzua publikoa delako, finantzazioa publikoa delako, eta sektorea esku pribatuetan dute utzia. Gatazka konpondu behar du Foru Aldundiak".

Aspalditik ari dira protestak egiten eta maiatzaren 21etik 25era greba egunak egingo dituzte.

ELA

EGOITZETAKO LANGILEAK DONOSTIAKO BULEBARREAN PROTESTAN. Nagusiaren esklabo direla salatzen ari dira eta ezkerrean dagoen langilea Adegi eta Lares azpikontratak irudikatzen ari da, diruak gainezka egiten diola.

eskualde, herri garrantzitsuenetan, esku-orriak banatzen ibili dira, emakumeen prekarizazioa eta Foru Aldundiaren jarrera salatzen. 280.000 esku-orri banatu dituzte. Maiatzaren 6an ELAko Hego Euskal Herriko 700 militante elkartu ziren Donostian esku-orriak postontzietan sartzeko eta autoen kristaletan jartzeko.

Greba garaian langileek %70eko (lan zama gutxiena dagoen uneetan) eta %80ko (lan gehien dagoen orduetan) zerbitzu minimoak pairatu dituzte. Grebaldia hasi zenean %60 eta %70ekoak ziren, baina Foru Aldundiak minimoak igotzea lortu du. Grebarik ez den egunetan larri ibiltzen direla salatu dute langileek, bada greba egunetan egoiliarrak artatzeko arazo are larriagoak bistaratzen dira. Aitziber Aranberri grebalariak ondokoa dio grebarik egiten ez duten egunetako erritmoari buruz: "Lan fisikoa eta psikologikoa oso gogorra da. Obrako langileak bezain nekatuta ateratzen gara. Psikologikoki ere bai, pertsonekin ari gara lanean, bakoitzak bere beharrak ditu eta langile falta badago. Gure esaldi erabiliena da 'itxaron pixka bat, orain ezin dut'. Ez gara iristen denera. Denbora markatuta dugu zeharo. Orain dena estutzen dute".

EGOILIARREN SENIDEAK LANGILEAK BABESTEN ARI DIRA

Egoiliarren senideek ondo dakite zeinen larri ibiltzen diren langileak, erabiltzaile denak ondo artatu ezinik. Senide talde batek agerraldia egin zuen maiatzaren 4an Gipuzkoako Gizarte Politikako Sailaren aurrean, haien kezka eta haserrea erakusteko. Senideek salatu dutenez, langileak egoiliarrak egoki artatzeko iritsi ezinda ibiltzen dira eta lan karga gehiegizkoak dituzte. Grebak egoera larriagotu duela adierazi dute. Foru Aldundiari esan diote langileen eta patronalen arteko gatazkaren giltza berak duela, eta salatu dute aurre-akordioak ez duela aurrera egin Diputazioak hala nahi izan ez duelako. Maite Peña diputatuari galdetu diote ea zergatik ez duen finantzatu nahi ELA sindikatuak eta bi patronalek egindako hastapen akordioa. Bestalde, egoiliarrak artatzeko jartzen duten dirua berreskuratzeko bideak aztertzen ari direla iragarri dute. Greban zerbitzuak okerragoak izan badira ere, Foru Aldundiak enpresei betiko kopurua ordaindu izana salatu dute. Senideek, bestalde, greba egunak izanda ere, berdin ordaintzen segitu dute. Langileek greba egin dutelako jasotzen ez duten dirua enpresek poltsikoratzen dute.

Grebalariek ez dute beti erabiltzaileen babesa izaten, inondik ere, eta EAEko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeen gatazka da horren adibide. Gurasoek ez dituzte irakasleak babestu, seme-alaben egoera salatzea izan da gurasoen helburua. Bizkaiko zaharren egoitzetako greba luzean, aldiz, Babestu egoiliarren senideen taldea sortu zuten. Langileen aldarrikapenekin bat egin eta protestetan elkarrekin hartu zuten parte. Zaintza gatazkaren erdigunera ekarri zuten, eta zainduak ondo egoteko zaintzaileak zaindu behar direla aldarrikatu. ●

YOGA BARRUAN HASTEN DA DENA

AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE
IZARO MARIEZKURRENA ETXABE

Aurkikuntza baten beharrak bideratu zuen Andonegi yogara. Arte martzialak eta surfa aspalditik praktikatzen ditu. Zerbait falta zuen ordea. Yoga filosofia gisa definitzen duen liburu bat erosi zuen, bizitza osotasunean barneratzearen ideia azpimarratzen duena: "Ez da soilik zer egiten den, nola baizik". Lehen klasea eman zuenetik pasio bihurtu du, eta bizitzaren ardatz.

Yogak Indian ditu erroak eta erlijioarekin eta erritualekin du lotura, baina hemen ez da berdin ulertzen fedearen kontu hori: "Fedea beti izan dugu, Elizak nola erabili eta politizatu duen beste kontu bat da. Mugatu egin dute eta norberaren barrutik kanporatu. Barneko fedea galdu dugu politikoa bihurtu delako, baina guztiok dugu txinpart hori. Erlijio bat izan gabe, yogak badu espiritualitatearekin lotura, hori maite dut".

Yoga interpretatzeko modua desberdina da jendarte bakoitzean, baita praktikatzeko moduak ere, Andonegik azaldu digunez. Yoga mota guztietan zabalduena Hatha da; %95ak egiten du. Hitzak berak eguzkia (ha) eta ilargia (tha) esan nahi du. Dinamismoa eta atsedena. Gorputz fisikoa eta arnasa. "Erdibidea atzematea da gakoa", esan digu, gorputz "osasuntsua" izatea osotasunean. "Batetik malgutasuna eta sendotasuna landuko dira postura desberdinen bitartez. Bestetik arnasketaren kontzientzia hartuko dugu, energia kontrolatzeko ezinbestekoa". Yoga, beraz, fisikotik hasi eta ikusezinera iristen da: meditazioa, erlaxazioa, kontzentrazioa eta arnasketa.

Arnasketak garrantzi handia du, gorputza eta burua lotzen baititu: "Yoga sortu zutenek zorrotz begiratu zioten inguruari, animaliei esaterako. Konturatu ziren animalia askori bihotza fite joaten zitzaiela. Beste batzuei aldiz lasai. Konturatu ziren antsietatea dugunean arnasa joaten dela fite eta bular goialdean mantentzen dela. Arnas hori superfiziala da eta kontrolatu behar da. Saiatu ziren kontrakoa bilatzen: arnasa luzatu eta sakontzen. Eta horrekin estresa lasaitzen zela ohartu ziren".

ESTRESAREN AROA

"Estresa da gaurko eritasunik handiena", dio Andonegik. "200.000 urte daramatzagu hemen eta azken 100 urteotan asko aldatu da bizia". Emozio horiek kudeatzeko tresnarik ez dugu erabiltzen, eta bizi kalitateari min egiten dio horrek: ezin loak hartu, nekatuta bizi, kafea edan, loa berriro galdu, lasaigarria hartu, urduritu, diafragma tenkatu, arnasketa bularraldean soilik zentratu, korapiloa tripan, gosea galdu eta abar. "Inork galdetu dio bere buruari ea nola egiten duen arnas?". Emozioek arnasarekin lotura zuzena duela adierazi du eta yoga dela hori lantzeko aukera bat.

Ikuspegi berarekin egiten den oro babesten du berak: "Ez du zertan yogarekin izan, izaten ahal da pasiera bat, itsasoa arnastea, kantatzea, dantzatzea, marraztea, ongi elikatzea, behar bezala murtxikatzea... Edozerk balio du, eta gauza horiek edonork egin ditzake, yoga bezalaxe".

Beragana zuzentzen dira 8 urteko umeak zein 88 urteko agureak. "Bakoitzaren gorputzaren araberakoa izango da norberak jarritako zailtasuna. Ez dago mailarik, ez lehiarik. Bakoitza bat da, bakarra eta konparaezina". Osasuntsu bizitzeko hainbat gako eman digu: gorputza onartu eta ez gerran izatea, zoriontasuna kanpoan atzemateaz gain barnean aurkitzea, norbera ezagutzearekin hurkoa ulertzea, norbere buruarengan pentsatu eta maitatzea, eta energia kontrolatzen jakitea. ●

Kolonbiako gobernuak 10.000 pertsonatik gora bahitu, hil, gerrillari uniformez jantzi eta gatazkan hildakotzat aurkeztu ditu

Omar Rojas Bolaños, soziologo kolonbiarra

Kolonbiako Polizia Nazionalean teniente koronela izatera iritsi zen Omar Rojas Bolaños (Bogota, 1961) soziologo eta ikerlaria. *Ejecuciones extrajudiciales en Colombia 2002-2010: Obediencia ciega en campos de batalla ficticios* (Exekuzio estrajudizialak Kolonbian 2002-2010: Obedientzia itsua fikziozko gudu-zelaietan) liburuaren bidez Alvaro Uriberen agintaldiko 'positibo faltsuen' edo polizia muntaien 10.000 kasu baino gehiago salatu ditu: militarrek nekazari txiroak bahitu, oihanera eraman, odol hotzean hil eta gorpuei gerrillari uniformeak jantzi eta armak eskuetan jarriz, gatazkan hildakotzat jotzen zituzten. Ihes egin behar izan du Kolonbiatik.

JABI ZABALA
IÑIGO AZKONA

Eufemismoa dirudi hain sarri erabiltzen duzuen "positibo faltsu" izendapenak. Nondik atera da?
Militarrek beren burua zuritzeko asmatutako kontzeptua da, ez direlako legez kanpoko exekuzioak ere, estatu hilketak baino. Estatuko agente batek aurrez seinalatutako edo akusatutako pertsona bat akabatzea da exekuzioa. Aldiz, gatazkaren parte ez diren eta aurretik ikertuak izan ez diren pertsonak hiltzea, behe klasekoak izate hutsagatik, estatu hilketak dira.

Alvaro Uriberen agintaldiko kasuak dira denak?
2002 eta 2010 arteko Uriberen zortzi urteak jaso ditugu, baina horrek ez du esan nahi aurretik halakorik egin ez zenik. 1994tik 2002ra ere, Andrés Pastranaren agintaldiko 664 kasu ikertu dira. Uribek Segurtasun Demokratikoa politikaren emaitzak iragarri zituenean, 19.405 terroristaren "bajak" aipatu zituen. Gero, nazioarteko justizia epaitegiak eta giza eskubideen taldeek Kolonbiako estatuari galdetu ziotenean 2014an, gobernuak 15.700 aipatu zituen soilik. Fiskaltza nagusiak 4.475 kasu aitortu ditu jada, baina gure ikerketan 10.000 baino gehiago aurkitu ditugu.

Hainbeste hilketa ezkutatzeak ezinezkoa dirudi, nola gertatu da?
1.176 kasuren lagina hartuta frogatu zen gezurrezko gudu zelai haietan hildakoen %70 nekazariak zirela, %13 indigenak, %6 langileak, %3 aniztasun funtzionaldunak, %3 aginduei uko egindako soldadu eta poliziak... Gutxi batzuk ziren gerrillan eta talde paramilitarretan aritutakoak edo aurrekari penalak zituztenak. Une batez, gobernuak Estatuaren etsaien "garbiketa sozial" moduan azaldu nahi izan zituen positibo faltsuak, baina datuek erakusten dute biktimak beste irizpide baten arabera aukeratzen zituztela: behe klaseetakoak eta babesgabeak ziren; biktimak aukeratzean, lehenetsi egiten zituzten haiengatik galdetuko zuen inor ez zutenak.

Zer helbururekin hainbeste hilketa?
Ikerketan frogatu dugu positibo faltsuak Uribek sustatutako Segurtasun Demokratikoa politika delakoaren ondorio direla, militarrei emaitza zehatzen helburuak ezartzen zizkielako. Egungo presidenteorde Marta Lucía Ramirezek adierazi zuen emaitzen arabera ebaluatuko zituela militarrak. Akabatutako terrorista kopuruaren arabera, alegia. Une hartan, Kolonbiak konstituzioan debekatua bazuen ere, heriotza zigorra ezarri zuten. Borreroa edonor zen: poliziak, soldaduak, kartzelazainak... "Barne etsaiaren" kontzeptu militarrean oinarrituta, Segurtasun Demokratikoa politikak ezarri zuen helburuen eta sarien politika, eta hildako terroristen kopurua aurkeztu behar zuten, gerra irabazten ari zirela erakusteko.

Ikerketarik ez zuten egiten?
Justizia militarrak, ikertu beharrean, soldaduei jarraibideak ematen zizkien, kontakizuna sinesgarria izan zedin. Liburuan jaso dugu nola behin, epaile militarra heldu zen horrelako sarraski baten tokira. Hildakoen artean pertsona bat bizirik zegoen oraindik, eta epailea ikustean laguntza eske hasi zen, oihuka. Epaileak, orduan, bizkarra eman eta "nik ez dut ezer ikusi" esanez, militarrei euren lana amai zezaten adierazi zien. Beste leku batera begiratzen zuten, literalki.

Nola hasi zen azaleratzen sarraskia?
Lehenengo salaketa publikoa Soachakoa izan zen, 2008an. Bogotatik hurbil dagoen herrixka horretan armadak hemezortzi gazte bahitu, Santander departamendura eraman eta hil egin zituen, uniformeak jantzi eta talde terroristetako kide moduan aurkeztuz. Haien amek ikerketa abiatu eta salaketa entzutetsua egin zuten Bogotan. Gehienetan hirietatik urrun gertatu ziren, baina Soachakoak adi jarri zuen Kolonbiako gizartea. Hala ere, positibo faltsuen lehen sarraski handia sei urte lehenago gertatu zen, Uribek presidentetza eskuratu eta bi hilabetera. Kolonbiako kostaldean La Popa bataniloiko Publio Mejia koronelak hemezortzi lagun hil zituen 2002ko urrian. Hildakoen artean baziren FARCekoak, ELNkoak, paramilitarrak eta herritarrak; denak nahastu eta gerrillaritzat aurkeztu zituzten. Uriberen Segurtasun Demokratikoa politikarekin batera hasi ziren positibo faltsuak, armadaren eta paramilitarren artean lotura zuzena izan zutelako. Ez diot neuk hori, epaileek diote, kategorikoki, Mejia koronelaren sententzian.

Gai honen ezagutzarik izan al zenuen polizian zeundela?
2008an kostaldeko hiri batera bidali ninduten polizia talde bati hauteskundeak zaintzen laguntzera. Han nengoela, bertako polizia judizial batzuek laguntza eskatu zidaten, informatzaile bat handik ateratzeko, bertan zeuden beste poliziekin ez baitziren fio. Laguntza eskaini nien, zintzoak zirela egiaztatu ondoren. Denbora batera, hura ahaztua nuela, Soachako afera atera zen. Hariak lotzen hasi eta konturatu nintzen nik ateratzen lagundu nuen gizon hura positibo faltsu baten biktima izatekoa zela.

Eta ikerketari ekin zenion orduan?
Ordutik, artean polizian nengoela, positibo faltsuei buruz hedabideetan agertzen zen guztia hasi nintzen biltzen, soziologo senak bultzatuta. Material nahikoa bildu ondoren unibertsitatera hurbildu eta ikerketari forma ematen hasi ginen. Santo Tomas unibertsitatean osatu dugu ikerlana eta berau jasotzen duen liburua, Fray Alonso de Zamora institutuaren laguntzarekin. Unibertsitateko galbahe guztiak igaro ditu lan honek. Bederatzi urte eman ditugu ikertzen.

Zein izan da Kolonbiako Estatuaren erreakzioa hilketak salatu ondoren?
Arazoa konpontzen saiatu beharrean estaltzen saiatu da Estatua, biktimen salaketak faltsutzat joaz, txostenak manipulatuz edo erabakiak atzeratuz, besteak beste. Foru militarraren hedatzearen bidez horrelako kasuak justizia militarrera eraman nahi izan ditu. Abokatuak ordaintzen dizkie hiltzaileei, eta biktimen familiei, berriz, askotan ez dizkie salaketak onartu ere egiten.

Mehatxurik jaso duzu?
Bai, traidoretzat seinalatu naute militarrek, gertatutakoaren datuak bildu, antolatu eta iritzi publikoaren aurrean aurkezteagatik. Soachan hildako baten anaia ikertzen hasi zen eta bera ere akabatu zuten. Gu kontu handiz ibili ginen ikerketa garaian, militarrak banaka elkarrizketatzen genituen, badaezpada. Uneren batean konturatu ziren ikertzen ari ginela, baina aparteko arazorik gabe burutu ahal izan genuen lana. 2018ko apirilean, berriz, unibertsitateetan-eta lana aurkezten hasi ginenean, gure aurkako kanpaina hasi zen, sare sozialetan-eta, ikerketa FARCek sustatua zela eta ni neu FARCekoa nintzela esanez. Segurtasun neurriak hartu behar izan ditugu, eta nire bizitza arriskuan zegoela konturatuta, Kolonbiatik alde egin behar izan dut.

Gobernu berriarekin ez dirudi gauzek hobera egingo dutenik.
Gobernu berria Segurtasun Demokratikoa politikaren itzulera da. Hasi dira kriminalizatzen kaleko manifestazioak, protesten zergatia zeinahi dela ere, eta 400 lider politiko eta sozial baino gehiago akabatu dituzte azken bi urteotan. Armak utzitako FARCeko 80 kide ohi hil dituzte jada eta gobernuak ez du txintik esan. Hau aldatzen ez bada, berriro 2002-2006 garaiko positibo faltsuetara itzuliko gara.

Ez dago damurik beraz.
Ez, oso mingarria da Kolonbian positibo faltsuengatik kondenatuak izan diren pertsonak aurkitzea, 20, 30 edo 40 lagun hil izanagatik inolako damurik ez dutenak. Jendaurrean esaten dute hori lasai, eta berriro egingo luketela diote. Zergatik egin zuten galdetuta, "ezin dugu onartu *castrochavismoak*, komunismoak, Kolonbian boterea hartzea". Hori guztia etsaia edozein kolonbiar izan daitekeela dioen barne etsaiaren doktrinan oinarrituta. Barne etsai hori ezkerrak, komunistak eta giza eskubideen ekintzaileak osatzen dutela irakatsi diete. Estatua zalantzan jartzen dutenak terroristatzat seinalatuak dira, eta terroristak ez dira atxilotu behar, baizik eta suntsitu. ●

ARGIA

BALTSAN
ELKARTEA

ZIBURUKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

ZIBURU
Herriko plazan

EKAINAREN 1ean
Larunbata
11:00 - 20:00

bizi nahi duen herria

WWW.ARGIA.EUS
#ARGIAk100urte

100 URTE TXIKITIK ERAGITEN

Ramadana Intxaurrondoko Letaman gaztetxean

ETXERIK GABEKO GAZTE MIGRATZAILEENTZAT ALTERNATIBA

Donostiako Intxaurrondo kalean ohikoa da gazte arabiarrak ikustea bazkalorduan. Bertan, Cáritaseko lagunek ogitartekoak banatzen dituzte egunero. Maiatzaren 6tik aurrera ordea, bazkaltzeko ez, afaltzeko elkartzen dira gazteak. Eta ez Cáritasen, metro batzuk gorago dagoen Letaman gaztetxean baizik. Modahara kolektiboari esker, Donostiako etxerik gabeko gazte arabiar hauek Ramadana euren ohituren arabera ospatzeko aukera izan dute aurten.

XALBA RAMIREZ
DANI BLANCO

Ayoub naiz, adin txikikoen zentroan, Donostian, bi hilabetez egon ostean, 18 urte bete nituenean kalera bota ninduten. Zergatik ez dago lo egiteko lekurik 18 urtetik gorakoentzat?". "Gaur, gauean 0 gradu azpitik egingo duenez larrialdietarako ostatua irekiko dute kalean bizi diren guztientzat. Gaueko 22:30etik goizeko 7:30ak arte dago irekita. Gainontzeko orduetan ez al du hotzik egiten?".

Hainbat gazte arabiarrek Letaman gaztetxeko megafoniatik euren esperientziak kontatu dituzte. Eraldatu egiten da gune autogestionatua iluntzeetan, maiatzaren 6tik ekainaren 4ra bitarte –edo 5era bitarte, ilargiaren araberakoa baita Ramadana–. Gaztetxeko eta Modahara kolektiboko kideek sua prestatu dute, parrila eta guzti, egun osoan zehar baraualdian dauden gazteek zer jana, eta batez ere, elkartasuna eduki dezaten.

Ramadana herrialde arabiarretan ospatzen den hilabeteko baraualdia da. Mendebaldarren begietatik islamismoarekin lotuta ikusten den arren, musulmanak ez diren arabiarrek ere egiten dute Ramadana, euren kulturaren oinarri gisa ikusten baitute. Ateook Gabonak ospatzea bezala, konparaziorako.

> ***150 gazte baino gehiago daude kalean Donostian, etxerik gabe: gehienak kalean lo egiten, aterpetxe batetik bestera bidaiatzen edo etxe hutsak okupatzen, besteak beste***

Eguzkia sortzen denetik ezkutatu arte ez da ezer jaten, edaten, erretzen edo kontsumitzen, ez eta sexu harremanik izaten, eskuzabal jokatu behar da eta zintzoak izan, beti ere, Koranaren arabera. Ilunabarrean, elkartu, otoitza egin eta baraua apurtu egiten dute.

Letaman gaztetxean ilunabarra eder doa. Batzuk sukaldean ari diren bitartean hainbat musikari eta inprobisatzaile giroa jartzen ari dira, umore onean; gaztelania ondo menperatu ez arren errimak egiten ari den gazteari "beste bat" eskatzen diote bertaratutakoek. Futbol txapelketa txikiak ere antolatzen dituzte, baita bestelako tailerrak ere: azken hilabeteetan asteartero ile apaindegia eta garbitegi zerbitzua ari dira egiten gaztetxean bertan.

Arabiarrentzat komunitatearen eraikuntzarako erritu garrantzitsua da Ramadana. Familiak eta lagunak elkartu eta elkarrekin ospatzen dute egunero erritua. Afalostean, kalera irteten dira eta herriek bizitzeko beste modu bat ezagutzen dute. Baina badira, egoerak hala behartuta, familiarengandik urruti daudenak, edo familiarik ez dutenak. Edo Donostian bezala, etxerik gabe non elkartu ez dutenak.

مشروبات
STREET MUSIC

KALEAN DAUDENEN "PROTESTA"

"Iazko maiatzean jardunaldi batzuk antolatu genituen hirian migrazioek duten eraginaren inguruan –dio gazte migratuekin hezitzaile gisa lan egiten duen Leire San Martinek–, hezitzaile lanetik harago joan behar genuela argi ikusi genuen, muga instituzionalak gainditu behar genituela".

Prozesu horren emaitza da Modahara kolektiboa –"protesta" esan nahi du dariya hizkuntzan–, etxerik gabeko gazte arabiarrekin asistentzia soiletik harago joan nahi duen taldea. Beraiek arduratu dira aurtengo Elkartasunezko Ramadan horren antolakuntzan, beti ere gazteekin elkarlanean.

Zenbaki zehatza jakin ezin daitekeen arren, 150 gazte baino gehiago daude kalean Donostian, etxerik gabe: gehienak kalean lo egiten, aterpetxe batetik bestera bidaiatzen edo etxe hutsak okupatzen, besteak beste. Postaletako Donostiaren beste aurpegia da, inork ezagutzen ez duena, ezagutu nahi ez duena.

Letamanen egunotan topatzen den alaitasunaren atzean "oso egoera zaila" dela azpimarratzen dute Modaharako kideek. Ana Revuelta hezitzailea ere bertako kide da: "Indar pila bat duen gazte bat ezagutzen baduzu, zeharo optimista dena, pentsatzen duzu "ea nolakoa den erorketa". Zeren badakizu eroriko dela, behera, behera... batez ere osasun mentalaren ikuspegitik". Ander Mujika ere bertan da, bolondres gisa laguntzen ari da. Ongi ezagutzen du kalean bizi direnen egoera: "Bederatzi hilabete pasatzen dituzte kalean aterpe batean sartu aurretik. Donostiara ondo iristen dira, baina aterpean sartzen direnerako denek dute pastilla bilduma, lotarakoak batez ere".

> ***Arabiarrentzat komunitatearen eraikuntzarako erritu garrantzitsua da Ramadana. Baina badira, Donostian bezala, etxerik gabe non elkartu ez dutenak***

Revueltaren ustez instituzioen logikarekin zer ikusia dauka: "Leku pila batetik pasatzen dira: gosaltzen duten lekua, bazkaltzen dutena, antzerkia egiten duten lekua, hezitzaileak... bakoitzak bere harremanak eraikitzen ditu eta ez da erraza". Erakunde bakoitzak bere egitekoa betetzen du baina pertsona erdigunean jarriko duen ikuspegi bat falta dela adierazten dute: ile apaindegi zerbitzua adibiderik sinpleena litzateke. Beraiek adierazi arte, ez zitzaien zerbitzua eskaintzen. "Gure ikuspuntutik eskaintzen dizkiegu zerbitzuak –eta erakunde bakoitzak beretik– baina orain arte inork ez du osotasunean pentsatu", dio.

LETAMAN ARNASGUNE

Bolondresak eta gazteak erosketak egiteaz arduratzen dira egunero elkarla-

nean. Sukaldean aritzeaz gazteak arduratzen dira. Abdelali etortzen da egunero, baina gaur "lana atera" zaiola kontatu digute.

San Martinek argi dauka: "Hezitzaile eta militante bezala, gazte migratzaileekin espazio horizontal batean

> ***"Donostian migrazioek duten eraginaren inguruan hezitzaile lanetik harago joan behar genuela argi ikusi genuen"***
>
> **Leire San Martin**

lanean aritzeak asko markatzen nau: guztiz hunkitzen nauen prozesua bizitzen ari naiz".

Etxegabeekin egotera ohituta ez dauden gaztetxeko kideen eta afaltzera joaten diren herritarren artean harridura bera da: "Hau ulertzeko garuneko zati bat kendu behar izan dudala sentitzen dut". "Niretzat hau elkarrekin bizitzea eta sentimendu hauez kutsatzea ederra da –gehitu du beste batek–. Hurbiltzeko beste modu bat eman dit, ondokoarekin harremantzeko bide berri bat ikusiz".

Oso harreman polita sortzen ari da eta afari hauetan Donostian topatzen errazak ez diren argazkiak aurki daitezke. Gazteen dantza, kantu eta esperientzia trukaketekin egoera benetan hunkigarriak bizitzen ari dira, kontatu digutenez.

Baina urrutira joan gabe, ondoko tabernan, hainbat bizilagunek mesfidati begiratu diete gazteei. Eta hor bat konturatzen da bolondres hauen lana ikaragarria den arren, oraindik asko dagoela egiteko. Arrazakeria instituzioetan eta inguruko herritarrengan oso bizirik dagoelako, baita norbere buruan ere. Urratsak emateko eredu eder bat proposatzen ari dira Modahara eta Letamanekoak, bidea egin nahi duen edonorentzat. ●

"OSO ESKERTUTA GAUDE"

Marokotik etorri da Azedine Bahloul. Sei hilabete daramatza Donostian kalean bizitzen eta egunero Intxaurrondoko Letaman gaztetxera joaten da Ramadaneko afarietara. Ez du argazkietan aurpegia erakutsi nahi izan.

Zein da zure egungo egoera?
18 urte ditut eta Donostian sei hilabete daramatzat bizitzen. Lau urtez egon naiz Melillako adingabeko zentro batean eta ateratzean lagun batek esan zidan Donostiara etortzeko, hemen laguntza emango zigutela. Bederatzi hilabete egin behar ditut kalean, eta ostean, aterpe batera joatea espero dut.

Zer da zuretzako Ramadana?
Jainkoarekin batzeko aukera ematen digu, gertuago sentitzeko. Guretzat oso garrantzitsua da. Bestetik, gorputzarentzat garbiketa handia da, eta osasuntsuago mantentzen laguntzen du. Gorputza eta arima garbitzeko. Familiarekin eta gure komunitatearekin bat egiteko modu ederra ere bada.

Erlijioarekin lotzen al duzu?
Batzuek errezatzen dute eta besteek ez, ez dugu musulmanek egiten soilik. Gutako batzuk meskitara joaten dira barauaren amaierara. Baina edozein kasutan mundu guztiak egiten du Ramadana.

Nola bizi duzu Donostian?
Zailagoa, urruntasunagatik, baina leku ederra topatu dugu. Niretzat lehen eta azken egunak dira okerrenak, gose handia izan ohi dut lehenengoan eta jateko irrikaz nago azkenekoan!

Zein da gaztetxearekin duzuen harremana?
Oso eskertuak gaude gaztetxeko jendearekin eta gainontzeko bolondresekin, oso eskuzabalak izaten ari dira eta gure artean ezagutzeko aukera ematen digute. Beti ez da erraza izaten gure egoera, baina indarra ematen digute aurrera egiteko.

"Gure identitatea mantentzen dugu"

Jerzy Starzynski
Lemko komunitatearen bultzatzaile sutsua



Jerzy Starzynski (1967, Legnica, Silesia Beherea, Polonia) koreografoa, etnomusikologoa eta historialaria da. Alabaina, ezer baino gehiago lemko komunitatekoa da eta bizitza osoa darama beraien hizkuntzaren eta kulturaren alde borrokan. Umetan, eskolan, jazarria izan zen lemkoa zelako. 1989an Kyczera kantu eta dantza taldea sortu zuen, besteak beste, lemkoek haien identitatea indartu zezaten eta lemko izateaz lotsatu ez zitezen.

JONMIKEL INTSAUSTI
JERZY STARZYNSKIK UTZIAK

Zein zen 1989an, komunismoa amaitu eta Kyczera dantza taldea sortu zenean bizi zen giro soziala?
1989ra arte, Poloniako lemkook identitatea adierazteko aukera oso mugatuak genituen. Ez ginen gutxiengo etniko desberdin gisa ezagutaraziak. Soilik Ukrainako Elkarte Soziokulturalaren egituretako adar bat bezala lan egin genezakeen, lemkook ukrainartzat hartzen gintuztelako. Ez genituen berezko eskolak, lemkera ukraineraren dialektotzat hartzen zen. Egoera horretan, gure identitatea garatzeko eta jarduerak egiteko genuen modu bakarra folklore taldeak ziren.

1989an dantza taldea bildu zenuen.
1989an, Legnican, [Poloniako Silesia Behereko 100.000 biztanleko hiria] gaztez osaturiko lehen taldea bildu nuen. 1991tik aurrera, Lemkowskiego Zespolu Piesni i Tanca "Kyczera" (Kyczera Kantu eta Dantza lemko taldea) izenpean ari gara lanean. Gaur egun gure jarduera, artistikoa baino askoz zabalagoa da. Erakusketak eta biltzar zientifikoak antolatzen ditugu, gazte-trukeko nazioarteko proiektuetan parte hartzen dugu, landa-lanak egiten ditugu, liburuak argitaratzen ditugu, eta gainera, lemkoen kulturaren gainean Polonian eta agian mundu osoan den liburutegirik handiena dugu. Nazioarteko jaialdi handia ere antolatzen dugu.

Urte hauetan guztietan, 500 pertsona baino gehiago pasatu dira dantza eta kantu taldetik. Orain, 80 pertsona baino gehiago ari dira elkartean. Kyczera ezaguna da. Ez Legnican soilik, baizik eta eskualdean, Polonian, eta atzerrian.

Alabaina, hasiera oso gogorra izan zen. Alde batetik, 1947an agintari komunistek Vistula Operazioan, Lemkovynatik [lemkoen aberri historikotik] Polonian barrena deportatu eta sakabanatu gintuztenetik ez genuelako gure dantzak egiteko aukerarik izan. 40 urteren ondoren dantzak ia ahaztuak ziren. Gure zaharrenei galdezka hasi ginen eta gure dantza tradizionalak errekuperatu ahal izan genituen.

Taldea osatzen zuten gazteak bestalde, bere jatorria onartzearen beldur ziren, ondorio desatseginen beldur ziren eskolan eta lantokian. Dena eraiki behar izan genuen "zerotik" hasita: programa artistikoa, taldearen kontzientziazioa, ingurune poloniarrean iritzi onen sustapena. Ukrainarrek aurkako jarrera erakutsi zuten, jarduera separatistatzat interpretatu zutelako gure egitekoa. Hala ere, lana baikor egin dugu eta ondorioak oso ikusgarriak dira gaur egun.

Nola lagundu zuen Kyczera dantza taldeak identitatea eta lemkera indartzen Legnican eta eskualdean?
Kyczera aitzakia perfektua izan zen gazteek elkar ezagutu zezaten. Silesia

Behereko hainbat herritakoak Legnicako entseguetara etortzen ziren. Dantza taldeko programa, lemkoei soilik ez, baizik eta beren auzotar poloniarrei ere aurkeztu genien. Gazteek arbasoen kultura ikasi eta beste batzuei transmititu zieten. Lemko zaharrenak konturatu ziren emanaldiak erakunde lokal poloniarrek antolatutako ekitaldietan sartzen zituztela eta beldurra izateari utzi zioten. Poliki-poliki Kyczeraz harro sentitzen hasi ziren.

Kyczeraren emanaldien bidez, poloniarrak eta lemkoak banatzen zituzten estereotipoak apurtzen hasi ziren. Lemkoak aipatzean Legnican, "gure lemkoak" esaten hasi ziren. Kyczera Poloniatik kanpo jaialdietara joaten hasi zenean, ez soilik lemko kulturarena, Legnicako eta Poloniako enbaxadore ere bihurtu zen. Eta haatik, eskoletako maisu eta maistrak gure haurrak sarritan goraipatzen hasi ziren. Horrek harrotasun sentimendua eragin zuen gazteengan. Beldurra izateari utzi zioten, lemkeraz leku publikoetan hitz egiten hasi ziren. Gaur egun inor ez da lotsatzen Kyczera taldeko kidea izateaz.

Kyczera kantu eta dantza taldeak jaialdi garrantzitsua antolatzen du.

Świat pod Kyczerą (Mundua Kyczeratik) Nazioarteko Folklore Jaialdia du izena, Polonian antolatzen diren mota horretako jaialdi handienetako bat da. Mundu guztiak daki lemkoek antolatua dela. Aurten ekainaren 28tik uztailaren14ra bitartean hainbat herritan egingo da, Legnican eta Lemkovynako Krynican ere bai. Jaialdiak komunikabideetan lemkerari buruz hitz egiteko aukera ematen du. Hirietako merkatu-plazetan eginiko gala-kontzertuetan aurkezleek emanaldiak polonieraz eta lemkeraz aurkezten dituzte. Agertokian jarritako pankarta handia, jaialdira joateko gonbite-kartelak elebidunak dira. Kalejiran parte hartzen duten taldeek plaka elebidunak eramaten dituzte herrien izenekin. Horrek guztiak lemkera hizkuntza oso ezaguna izatea dakar.

Lemkeraz dihardugu gure haurrekin entseguetan. Bidaiak antolatzen dizkiegu Lemkovyna ezagutu dezaten, haiek historiara eta arbasoen kulturara hurbiltzearren. Eliza zaharrak, hilerriak, erakusten dizkiegu, eskulangintza lantegi bat antolatzen dugu, museoetara eraman ere bai. Oraintsu *Eta egiaz han paradisuan bezala bizi ginen* filma egin dugu. Aktoreak gure taldeko kideak dira. Galdutako Arkadiaren galeraz mintzo da filma, eta nazioarteko zinema jaialdietan erakutsi nahi dugu.

Zein da Legnican eta eskualdean lemkeraren ezagutza, adinaren arabera?

Zoritxarrez, gero eta pertsona gutxiagok hitz egiten dute lemkeraz. Polonia osoan ikasgai guztiak lemkeraz ematen dituen eskolarik ez dago. Lemkera eskola-orduen ondoren beste zentro ba-

tean ikasten da. Nire seme-alabak lemkera-klaseetara doaz eta lemkera eskola ziurtagirietan nahitaezko irakasgai dute lizeoan. Daniel, seme zaharrenak, iaz batxilerreko azterketa (baxoa) lemkeraz egin zuen. Polonian hala egin duen batxilerreko ikasle bakarra da. Ikasturte honetan, Olga nire alabak, gauza bera egingo du eta harekin batera gure taldeko beste gazte batek, Danielek. Uste dut Kyczera taldeak baduela eragina gazte hauek beren ama hizkuntzan baxoa azterketa egitean, nahiz eta inork horretara ez behartu.

Herrixketan bizi direnek hobeto ezagutzen dute lemkera, bereziki belaunaldi handienetan. Legnican, oso pertsona gutxik hitz egiten dute lemkera garbia. Arazoa ez da soilik poloniartzea, ukrainartzea ere bada. Legnican 1950eko hamarkadaren erdialdetik, eskola ukrainarra dago. Ukrainako hizkuntza literarioa ikasteko, sarritan etxean ikasitako hizkuntza ahazten dute.

Legnicako lemkoen ukrainartzea eliza katoliko-greziarraren bidez ere egiten da. Elizgizonak ukrainarrak dira eta haien nazio-identitate ukrainarra hedatzen dute. Zailtasun handiarekin onartu izan dute lemkoak desberdinak direla. Lemko ugari ere eliza ortodoxoko sinestunak dira, eta kleroa lemko jatorrikoa da. Eliztarrei sermoietan eta etxera egindako bisitetan lemkeraz egiten diete. Hala ere, kontuan hartu poloniartze oso bizia dela arazoa batez ere, eskoletako heziketa sistemaren, komunikabideen eta lantoki poloniarren bidez egiten dena.

> **"Gazteek beldurra izateari utzi zioten, lemkeraz leku publikoetan hitz egiten hasi ziren. Gaur egun inor ez da lotsatzen Kyczera kantu eta dantza taldeko kidea izateaz"**

Zeintzuk dira gaur egun Legnicako lemko populazioak aurre egin behar dien erronka eta zailtasun handienak?

Kulturako, zientziako eta heziketako gure berezko erakunde profesionalak izango bagenitu, gure identitatea mantentzea askoz errazagoa izango litzateke. Zoritxarrez, ez dugu inon horrelako erakunderik Polonian. Arazo handia da, zeren eta dena boluntarioki egin behar da, baina hala ere, nonbaitetik atera behar dugu bizimodua. Halako erakundeek asimilazio prozesua geldotu lezakete.

Duela urte askotatik, helburu honengatik borrokan lanean ari naiz. Tamalez, alferrik. Arazoa da gazteak hiri handietara joaten direla eta are azkarrago asimilatzen dira poloniar kulturan. Gure komunitatea zahartzen ari da. Hala ere, oraintsu halako fenomeno bat ikusten ari gara: gero eta gehiago dira hiru seme-alaba edo gehiago mundura ekartzea erabakitzen ari diren lemko gurasoak.

Zoritxarrez, iragarpena ez da baikorra. Gure lurralde etnikotik kanpo bizi gara, atzerrian. Itsaso poloniarrean bizi gara. Gure identitatea mantentzen dugu zale amorratuen talde txikiari esker. Esango nuke "eroak" ere badirela, osasunaren eta familiaren bizkar lan egiten ari baitira. Baina denak bere mugak ditu. 52 urte ditut eta oso nekatuta sentitzen naiz. Nire emaztea duela zazpi urte hil zen eta bakarrik geratu nintzen bost seme-alaba txikirekin. Bidegurutzean geldirik nago. Saiatzen naiz nire ezaguerak eta erantzukizunak gazteei transmititzen. Halako hainbat pertsona baditut inguruan, baina urte asko behar dira ezaguera barneratzeko. ●

Henrietta Lacks hilezkorra

NAGORE IRAZUSTABARRENA URANGA

Baltimore (AEB), 1951ko urtarrilaren 29a. Henrietta Lacks Johns Hopkins ospitalera joan zen, paziente beltzak hartzen zituen inguruko ospitale bakarrera. Tabakoan aritutako nekazari txiroari minbizi zerbikala diagnostikatu zioten. Handik zortzi hilabetera, urriaren 4an, hil zen Virginian jaiotako emakumea, bost seme-alabaren ama, tratamendu gogorra jaso ondoren, 31 urte zituela.

Baina tratamenduari ekin baino lehen, biopsia bat egin zioten. Eta George Otto Gey doktoreak kartzinomaren zelula horiek aztertu zituenean ezaugarri harrigarria zutela ikusi zuen: hilezkorrak ziren. Orduz geroztik, etengabe ugaldu dituzte HeLa zelulak –emakumearen izen-abizenen hasieratik hartutako izena–; zaila da kalkulatzen zenbat diren, baina adituen arabera 20 eta 50 tona HeLa zelula artean ekoitzi dira orain arte. 70.000 ikerketatik gora egin dira eta emaitza bikainak eman dituzte biologia zelularrean, txertoetan, minbiziaren aurkako prozeduretan, ernalketan eta beste hainbat alorretan.

Medikuntzarentzat altxor izugarria dira Henriettaren zelulak, eta milaka patenteren jabeen poltsikoak betetzeko ere balio izan dute. Baina jokabide etiko zalantzagarriak ere azaleratu dituzte. Johns Hopkins ospitaleak garai hartako ohiko prozedura zela adierazi arren, Henrietta Lacksi inork ez zion esan bere zelulak gordeko zituztenik eta, jakina, ez zioten horiek ikertzeko baimenik eskatu. Zelula haiek ekarriko zuten guztia jakin gabe hil zen, eta haren senitartekoei ere ez zieten luzaroan ezer esan.



LACKS SENDIA / TOM DERRINCK

EZKERREAN HENRIETTA LACKS (1920-1951). ESKUINEAN, HAREN ZELULA HILEZKORRAK.

1973rako HeLa zelulak mundu osoko laborategietan zabalduta zeuden, espaziora ere bidaiatu zuten, eta orduan eman zieten seme-alabei zelula hilezkorren berri. Henrietta Lacksen ondorengoen zelulek ere ezaugarri berberak ote zituzten jakin nahi zuten, laginak behar zituzten, eta soilik horregatik erabaki zuten informazioa familiari ematea. Emaitza positiborik lortu ez eta handik aurrera ez zieten jaramonik egin, hainbat senitarteko informazio gehiago biltzen edo irabazi ikaragarrien zatitxo bat jasotzen saiatu ziren arren.

2013ko martxoan HeLa zelulen genoma osoa sekuentziatuta, bi proiektu datuok argitaratzeko zorian zeuden. Beti bezala, Lacks familiari ez zioten ezer jakinarazi. Baina, behingoagatik argitalpenak geldiaraztea lortu zuten Henriettaren bilobek. AEBetako Osasun Institutu Nazionalarekin lau hilabetez negoziatu ondoren akordio batera iritsi ziren: ez zuten sosik jasoko, baina, lehenengoz, amonaren zelulei buruzko erabakietan parte hartzeko aukera izango zuten. Ikerketaren emaitzak argitaratzeko baimena eskatu zieten, eta baietz erantzun zuten. ●

YANN CARADEC

Telebistak kirolen kolorea aldatu du

Tenisko pilotak hori-berdexkak dira; teknikoki hori optikoa deritzo kolore horri. Baina luzaroan pilota gehienak txuriak izan ziren. 1972an Nazioarteko Tenis Federazioak kolorea aldatzea erabaki zuen, koloretako telebistetan pilota ez zelako ondo bereizten. Aldaketa, ordea, ez zen berehalakoa izan. Wimbledon txapelketako antolatzaile egoskorrek 14 urte behar izan zituzten Federazioaren aginduari men egiteko. Gurean esku pilotaren koloreak beranduago aldatu ziren, 90eko hamarkadan, telebista emankizunak ohiko bihurtu zirenean. Pilota beltzak txuritu ez ezik, frontoiaren kolorea aldatzeko ere eskatu zuen telebistak eta sekula telebistan aterako ez diren frontoi asko eta asko ere berdez margotu dituzte orduz geroztik. ●

OKILA ETA OILOA EGURALDIA IRAGARTZEN

JAKOBA ERREKONDO
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Gaur goizean okila garrasika aritu da etxe gaineko haritzean (*Quercus robur*). Luze aritu da eta haserre zela zirudien. Goiza ederra da, freskoa baina arraitsua, oso argia. Urteko egun luzeenetara hurbiltzen ari gara eta goizean goizeko argitasunean igarri da. Kexu zen, ordea, okil berdea. Esaerak hala dio, okila kantuan ari bada egarri da, euri eske ari da. Hona Gotzon Garatek jasotako batzuk: tokile kantari, uria fite; okilla kantari, eurixe seguru; okilla kantari, euria hemen da; okilla kantari, okilla euri eske; okiloa kantuz, euri haizea laster hixtuz; okile kantari, okile egarri; okila kantetan, okila egarri; eta Abadiñoko Natalia Munitxari jasotako: okille egarri dok. Eguraldiaren iragarpenari begiratu eta gaur arratserako euria datorrela dio.

Ez dakit kantuan aritu den okil hori bera edo beste bat zen, baina atzo goizean goiz, esnatzera atarira atera behar nuenean hor ikusten dut leihotik, bezperan jarri dugun itxitura berrira hurbildu eta lehen hesolan pausatzen. Itxitura sasiakaziazko hesola (*Robinia pseudoacacia*) eta burdin-sarezkoa da. 22 hesola ikusten dira leihotik, muntoaren atzean galtzen diren artekoak. Bada okilak, lehenengotik azkenekora, banan-banan miatu ditu; bere mugarrietako zutikako zur berri horiek aztertu eta goizeko apetaldia asetzeko moduko mokaduren baten xerkan.

Ugaritzen ari da okil berdea gure inguruan, eta ni pozik, izan ere garbitasun ederra egiten dute intsektu, har, beldar, krisalida eta abar. Ikuskizun polita da bere hegaldi uhinduna. Eta kantua: kar-kar ari dela dirudi, lasterragotzen eta tonua galtzen...

Okilek, bere soinaren garbitasunerako ur bainuak bezala lur bainuak ere hartzen ote dituzte? Behorrak edo astoak udaberriko aro onarekin zaldaliak edo garagarrak irabazten dituzte, edo garagarraka, iraulka, lorrinka, amilketan zapuzka, ihauska, ihalozka, aztalka, astalka, itzulipurdika, irabiaka, inauldurizka, pulunpaka edo aztarrika dabiltza.

Izeben oilategian oiloren bat hegoak zabalik lurrarekin auska bezala zalapartan zebilenean, hautsa harrotuz, aztarrika zebilela ikasi genuen; arkakusoak eta zorriak uxatzeko, agi danean. Garagarraka ere esango zaio nonbait, izan ere esaerak hala dio: "Oiloak hauts artean garagarraka? Denpora txarra".

Okila kantuan eta oiloa aztarrika, eguraldia txartzera doan seinale. Okila kantuan entzutean hasiko dira oiloak aztarrika. Eta okilak egiten al du aztarrika? Okila zenbateraino da oilo? Eta oiloa okil? ●

Esaerak hala dio, okila kantuan ari bada egarri da, euri eske

JUAN MARI IBARZABAL

SAGARRAK TALDE EKOLOGISTA

BASAURIKO ZUHAITZ ESANGURATSUEN BILA

GARAZI ZABALETA

Basoarekin edota mendiarekin lotzen ditugu sarri zuhaitzak, ohartu gabe gure herrietako kaleetan ere baditugula horietako asko. Basauriko Sagarrak talde ekologistak ideia horri tiraka jarri berri du martxan *Basauriko arbola esanguratsuak: lagunduko diguzu bilatzen?* kanpaina. Jendearentzat edozein arrazoi medio garrantzitsuak diren arbola horien bilketa egin nahi du taldeak, zuhaitzon identifikazioarekin herritarrengan ezagutza eta kontzientziazioa bultzatuz.

KATALOGO PARTE-HARTZAILEA

"Guk ere egin genezakeen herriko zuhaitzen katalogoa, baina erabaki dugu herritarren laguntzarekin egitea, haiek ematen diguten informazioarekin", azaldu du Gabi Hernandez kideak. Herritarrak katalogoa sortzen inplikatuta haien kontzientziak astintzea errazagoa dela uste dute ekimenaren bultzatzaileek. "Garrantzitsua da herritarrak konturatzea zuhaitzak hor daudela, herria hazi egin baita eta askotan etxe altuen gerizpean gelditu baitira. Egunero haien ondotik pasatzen gara baina ez gara ohartu ere egiten".

Baina, zeintzuk dira arbola esanguratsuak? Zeri egiten diote erreferentzia? Hernandezek adierazi du esanahi zabala eman nahi diotela "esanguratsu" hitzari. Askotan zuhaitz zaharrak, handiak edo espezie berezietakoak soilik hartzen dira esanguratsutzat, baina horri buelta eman nahi diote kanpaina honetan. "Norbaitentzat zuhaitz bat oso berezia izan daiteke urtetan bere auzoan egon delako, zentzu sentimentala ere izan dezake. Guretzat zuhaitz esanguratsuak ez dira betiko ezaugarrietan nabarmentzen direnak soilik".

ZUHAITZENGANA HURBILTZEKO MODU BERRI BILA

Kanpainan zehar hainbat ekimen eginen dituzte Sagarrak taldekoek. Esaterako, zuhaitz ezberdinen inguruko informazioa biltzen duten hamar panelez osatutako erakusketa martxan dute jada. Horrekin batera, maiatzean eta ekainean zehar herriko kaleetan ibilaldiak eginen dituzte bertako arbola espezieak ezagutzeko.

"Duela gutxi egindako ikerketa batek azaltzen du landareen eta zuhaitzen inguruan ezezagutza handia dagoela, animaliez baino askoz gutxiago baitakigu gaur egun landareei buruz", azaldu du taldeko kideak. Aurreko belaunaldiek zuhaitzekin zuten harremanaren eta horien gaineko ezagutzen transmisioan gertatzen ari den etenaren aurrean bide berriak proposatzen dituzte taldekideek: kasu honetan teknologia berriak erabiliz eta modu erraz batean herritarrak berriz zuhaitzengana hurbiltzea da apustua. "Nahikoa da argazki bat edo bi bidaltzea eta zuhaitza non kokatuta dagoen esatea. Guk ondoren informazioa gehiago landu eta osatuko dugu inbentarioa". ●

ASTEKO PORTADA HAUTATUA

2018ko urtarrilaren 28a

KOLDO IZAGIRRE

Ilunabar oro bezala belardietan lasterka Aitor Ardura, inon ez bezalako berdeak baitira inguru hauek orain. Bizitasun bejetal honek garuna formateatzen dio. Horregatik ari da lider bat bihurtzen bere alderdi politikoaren barruan. Beti bezala, neuronen higienea eginez herriaren etorkizuna hausnarturik, Basilikaren aurrean azaldu da. Zeinen obra ederra! Ateak zabaldu zaizkio, biokonputadoreek kudeatzen dute Basilika. Bazekien. Atzo ez zegoen garraio zinta bat ikusi du. Gainean dakarrenak halako durduzamendu bat eragin dio, baina luze gabe baretu zaio bihotza.

Hain samur esplikatu dio Basilikak…

Gizakia bizi deino agortuko ez den ekaia izanik, gorpuak konpostatzen hasi gara. Mundu mailako esklusiba. Giza gorputzeko harrak, portzelanazko haginen titanioak eta mokorren polietilenoak osotasun kimiko bat bihurtzea lortu dugu. Prozesuan sortzen den gasa, bestalde, ongarri ezin hobea dela frogatu dugu, lurralde osoan hedatzeko asmoa daukagu gure tximinia indartsuetarik. Aberastasuna sozializatu. Lanpostuak sortu. Erreferentea bihurtu ekonomia globalizatuan, inon baino berdeagoak izanen direlako gure futbol zelaiak.

Ateak itxi zaizkio…

Laster gorpu kopuru garrantzitsua hartzekoak gara Sirian eta Somalian bildu hildakoekin. Baina titanio eta polietileno gutixko ekarriko dutenez, bertako gorpuak ere behar ditugu.

Garraio zinta…

Aitor Ardurak bazekien biokonputadoreek kudeatzen dutela Basilika, baina ez zenbateraino: belarrian dindilizka daroan eraztun karioa detektatu diote. Lili Larrondo amorantearen oparia zen, Guggenheimen erosia. ●

ARGIAK 100 URTE

ASLE: LAN SOZIETATE ETA PARTAIDETUAK

25 urtez ASLEko kide izateagatik trainerua jaso du ARGIAk

ARGIAko lehendakari Bego Zuza oroigarria eskutan.

ARGIA

Maiatzaren 10ean egin zuen ASLE elkarteak (EAEko Lan Sozietate eta Partaidetuak) bere 37. Batzar Nagusia Bilbon. Ohi duenez, bertako kide 25 urte bete dituzten enpresei oroigarria eman zien, elkarlana irudikatzen duen trainerua. Zazpi enpresak jaso zuten ikur hau: Mariaka kutxila eta disko industrialak; Igarle software enpresa; Osoak zirkuitu elektrikoak; Torniplasa finkatze piezak; Acelec instalazio elektrikoak; Grindel engranajeak eta ARGIA.

1982AN SORTU ZEN ASLE 53 ENPRESA BILDUZ

"Kasualitatez" sortu zirela azaldu digu Josetxo Hernando ASLEko kudeatzaileak. Lan Sailak Lan Sozietateentzat (gaztelerazko SAL hizkiz ezaguna) finantzazio aukerak zabaldu zituen. Hernandok kontatu duenez, ASLEren kide ziren 53 enpresen interes komunak defendatzeko sortu zen, eta enpresa hauek denak industria sektorekoak ziren, eta birmoldaketa prozesuetan sartuta zeudenak. "Lan Sozietateak figura berria ziren, langileek kapitalean parte hartzeko aukera ematen zuena eta jabetzaren gehiena langileen esku jartzen zuena. Administrazioarekin zorrak negoziatzea egokitu zitzaigun ASLEren sorrera hartan, SAL bihurtu ziren industria enpresa birmoldatu hauetan langileek aurrekoen zorrak jaso baitzituzten".

Urte hauetan guztietan aldatuz joan da SALen egoera EAEn. Batzarrean eman zituzten datuen arabera, 2018 bukaeran 567 SAL zeuden EAEn. Gorakada begi-bistakoa da, beraz. Baina hauen izaera ere aldatuz joan da: egun industria sektorekoak SALen %43 dira (sorreran %100 ziren), beste %32 zerbitzu sektorekoak, %13 industria sektoreari lotutako zerbitzuena eta %12 eraikuntza eta hauei loturikoena. ASLEren sorrera birmoldatutako enpresei lotuta bazegoen, egun ekintzailetza enpresak eta belaunaldi erreleboan sartuta daudenak dira nagusi bere bazkideen artean.

ARGIA ASLErentzat zer den galdetuta, *Zeruko Argia* garaitik "askatasunaren sinbolo" izan dela erantzun du Hernandok. Saria ematerakoan, "kazetaritza independentearen ispilu" hitzekin definitu zuten ASLEkoek ARGIA.

Mila esker, ASLE, 25 urtez langileen parte-hartzea oinarri duen enpresa egiten laguntzeagatik. ●

ZIBURUKO I. EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

Durango dardarka

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

Bidasoaz bestalde marea gora dator. Ziburuko I. Euskal Liburu eta Disko Azoka antolatu dute Baltsan Elkarteak eta ARGIAk, eta helburua garbia da: eskualdean euskaraz bizi nahia sustatu eta indartzea, ARGIAren 100 urteak profitatuz proiektu komunikatiboa inguru horretan ezagutaraztea, eta bide batez, aspaldian buruan zuten elkarlana abiaraztea. Ez ahaztu data, ekainaren 1a, larunbatarekin.

"Nola azalduko diot irakurleari zer aurkituko duen Ziburuko plazan ekainaren lehenean?" galdetu diot Ladix Arrosagarai Baltsan elkarteko kide eta azokaren antolatzaileari. Erantzunak sinplea dirudi lehen esaldian, galdetu beharko ez banio bezala. "Euskara hutsezko ekoizpenak, liburu, disko, komiki edota mahai-joko eta DVD. Helburua euskaraz bizitzea sustatzea baita, euskaraz irakurriz eta gozatuz". Baina badu bigarren zati bat: "Eta aurkitu bezainbat espero dugu jendeak ekarri eta utziko duela ere zerbait: plaza euskalduntzea, hiriaren bihotzean euskal giroa nagusitzea bi aldeetako euskaldunak elkartuz. 100 urte betetzen dituenari beste honenbestez jarrai dezan animoak emateko manera ederra!". Polita, ezta? Eta are politagoa jarraipena: "guztiz naturalki jo du Baltsan elkarteak ARGIArengana azoka hau antolatzeko. Batek Ziburuko txokotik amesten duen Euskal Herria, astero ari baita bestea euskaratik eta euskaraz gauzatzen, tipitik eraginez, kazetaritzaren independentzia jorratuz. Euskalduna, herrikoia, solidarioa eta burujabea: baltsan (komunean) ditugun baloreak dira".

Adur Larreak egin du afixa.

BALTSAN ELKARTEA

Badira zazpi urte elkartea sortu zela bi helbururekin: Ziburun euskara nagusiki erabiliko den gune bat sortzea (bil txoko moduan) eta herriko animazio sozio kulturalean parte hartzea beti ere euskararen erabilerari lehentasuna emanez (elkarte moduan). Bazkideekin funtzionatzen du eta badituzte hirurogei bat. Euskarazko ekitaldientzat "gune erreferentziala" bihurtu dela aitortu digu elkarteko kideak.

Hamazazpi argitaletxek onartu dute azokan izateko gonbita, eta beraz, izango da zer irakurri eta entzuna.

ARGIAko lantaldetik esker hitzak besterik ez dira geratzen Ziburuko lagunentzat, plazer bat baita horrelako ekimenak baltsan egitea. Biba zuek. ●

ARGIA
1919 · 2019

AGENDA

ARGIAK 100 URTE: ZERUKOTIK LURREKORA

Donostia San Telmo Museoa
19:00

Maiatzak **21** asteartea
Koldo Izagirre
Mendearen umeek munduari desafio hitzaldia.

Maiatzak **22** asteazkena
Antton Olariaga eta Joseba Larratxe
100 urte, ehunka irudi hitzaldi ilustratua.

Maiatzak **24** ostirala
Joxemari Ostolaza "Xalbardin", Malores Etxeberria eta Josu Landa
Enpeinatzea ez bada libre errezitala.

Maiatzak **28** asteartea
Elixabete Garmendia
Euskarazko kazetaritzaren intrahistoria bat hitzaldia.

ZIBURUKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

Ekainaren **1**ean
Ziburuko herriko plazan
11:00 - 20:00

Baltsan Elkarteak eta ARGIAk elkarlanean antolatuta.

AZOKA
AZOKA.ARGIA.EUS

NOLA DA
MUSUTRUK?

Ostegunetan 10:00etan jartzen ditugu *Argia Jendea*-rentzat musutruk dauden gaiak eta zozketarik gabe, bizkorren eramaten dituenarentzat dira. Ondasunak banatu ditzagun, urtean musutruk gai bat hartzea eskatzen da.

KAFE ANTZOKIAN BAZKARIA 2 LAGUNENTZAKO

MUSUTRUK JARRIKO DEN EGUNA:
Ekainak 6, osteguna, 10:00etan

"Nire bizitza arriskuan jarri zuen argazki berak fama eta arrakasta ekarri dizkit gero, eta madarikazio moduko bat da orain"

AEHAM AHMAD, MUSIKARIA

Siriako Yarmouk errefuxiatu gunean (Damasko) jaio zen 1988an, palestinar familia baten baitan. Pianoa zuen ogibide, baina gerrak dena kendu zion. Sarraskiaren erdian musika egiten jarraitu zuen ordea, eta irudi haiek gure hedabideetako orrialdeak bete zituzten. Oinez iritsi zen Alemaniara 2015ean, eta musikatik bizitzen jarraitzea lortu du, inoiz baino arrakastatsuago. Mixel Etxekoparrek Xiru jaialdira gonbidatuta, Euskal Herrian aritu da lehendabizikoz.

IGONE MARIEZKURRENA
IGONE MARIEZKURRENA / NIRAZ SAIED

Musikagile profesionala izatea balentria galanta da, gurean ez ezik, kasik edonon. Baina, Siriako errefuxiatu gune batean jaio eta musikatik bizi nahi duenaren determinazioa bereziki miresgarria iruditzen zait..

Tira, determinazioa aitarena izan zen –barrez–. Biolinista zen, itsua, musika klasikoa maite zuen guztiaren gainetik, eta ni ere halakoa nahi ninduen. Berarekin entseatzen nuenean, auzoko lagunek barre egiten zidaten, instrumentuak jotzea ijitoen gauza zela-eta. Amaren familiak ere aita galtzaile gisa ikusten zuen, eta aitonak esaten zidan azokan tomateak piano gainean zabaldu eta saltzeko beste ezertarako ez zuela balio tramankulu hark, ez zigula inoiz dirurik emango. Niri ere ez zitzaidan gustatzen.

Zergatik eutsi zenion orduan?

Gu hazi ginen giro eta kulturan aitaren borondateari kontra egitea ez da gauza erraza. Berak plan hori zuen niretzat diseinatuta, eta onartu beste aukerarik ez nuen izan. Homs hiriko kontserbatorioan Beethoven, Chopin eta beste guztiak gorrotatuz hasi nintzen, baina laster ulertu nuen musika unibertso askoz zabalagoa zela, neure neurrira ere erabil nezakeela, eta orduantxe aldatu zen gure harremana. Amaren familia oker zebilen, aita oso argia baitzen: ikasketak burututa, ni neu eskolak ematen hasteko gai izan nintzen, eta Yarmoukeko gela hartan bertan pianoak afinatzeko tailertxo bat ere jarri genuen martxan, eta aitonak inoiz imajinatuko lukeena baino dirutza handiagoa egin genuen. Garaian, irakasle baten hileroko soldata 60-70 bat eurokoa zen Sirian. Gu hilean 10.000 irabaztera heldu ginen! Senideentzako zazpi etxe erosteko gai izan ginen, bakoitza 200.000 eurokoa Damaskon oso garestiak direlako, eta bigarren gela bat ere zabaldu genuen! Den-dena musikari esker.

Baina 2011n gerrak eztanda egin eta eraikia zenuen guztia eraitsi zuen...

Ordura arte lortutako guztia... Eta begi aurrean genituen planak ere bai; emaztea eta biok ezkonberriak baikinen, gure umeak sei hilabete eskas zituen bonbardaketak hasi zirenean. Yarmouk "Gosearen eremua" bilakatu zen, jendea gosez hiltzen ikusten genuen. Ni kaleetako plastikoak biltzen hasi nintzen, sua egiteko, eta falafel frijituak salduz bizirauteko. Baina falafelak ere amaitzen hasi ziren, anaia atxilotu zuten, dena zen beltza... Uste nuen heriotzak aurki gu ere irentsiko gintuela. Talde armatuek, batzuek eta besteek, dirua eskaintzen zieten familia etsituei, gizonak eta mutilak euren tropetara batzearen truke. Baina ni ez nintzen gai izan...

...zuk musikan aurkitu zenuen ihesbidea eta sarraskiaren erdian ingurukoak zaintzeko modua.

Lehenik eta behin niregatik eta niretzat egin nuen; burua ez galtzeko, nor nintzen gogoratzeko. Egia da pianoa kalera atera eta jotzen nuenean, tarte batez bazen ere, bildutako jendea txaloka eta

kantuz aritzen zela, saminetik aldenduta bezala. Baina ez zait gustatzen inoren arimaren salbatzaile izan nintzenik esatea, ez baitzen hala gertatu. Milaka lagunek bizia galtzen jarraitu zuten.

Baina badakizu Mendebaldean profesionalak garela ikonoak bilatzen edota eraikitzen. Hedabideek heroiak behar izaten dituzte istorioak kontatzeko. Eta, zentzu horretan, zure argazki sonatu hura, sarraskiaren erdian pianoa jotzen ageri zaren hori, gozoki bat izan zen.
Bai, baina ia-ia erail ninduten argazki harengatik. Begira, egilea, Niraz Saied argazkilaria, hilda dago, eta ez zait gustatzen hildakoei buruz gaizki hitz egitea. Baina berari ere esan nion: argazki hura ni ohartu gabe atera zuen, eta nire oniritzirik gabe saldu zion CNNri 560 euroren truke. Berehala birala izan zen, eta hain justu horregatik seinalatu ninduten Al Nusrak eta Daeshek. Zerrenda beltzean sartu ninduten, pianoa erre zidaten, eta nire hatzak mozten saiatu ziren. Saiedek bezala gure eguneroko bizitza dokumentatu zuten beste argazkilari asko ere modu oso arduragabean aritu ziren, euren irudien argitalpenek eragin zitzaketen ondorioez jabetu gabe.

Zergatik?
Daeshek ez duelako zerikusirik islamarekin! Edozein aitzakia nahikoa zaie jendeari lepoa mozteko, eta hedabide mendebaldarretan agertzeak susmagarri bilaka zaitzake. Badakizu zenbat jende identifikatu, salatu eta akabatu zuten horrela Daeshek ez ezik beste bandoek ere? Asko! Eta biktimek ez zekiten inork argazki bat egin zienik, ezta Europako edota AEBetako medioetara iritsi zirenik ere, guk ez baikenituen zeuen hedabideak kontsumitzen eta arabezko medioek ez baitzituzten halakoak erosten.

> ***"Ia-ia erail ninduten argazki harengatik. Egilea, Niraz Saied argazkilaria, hilda dago, eta ez zait gustatzen hildakoei buruz gaizki hitz egitea. Baina berari ere esan nion: argazki hura ni ohartu gabe atera zuen eta nire oniritzirik gabe saldu zion CNNri"***

Besterena den gerra bat bizi eta nozitzeaz aparte, horren kontaketa elikatzeko erabili zaituztetela uste duzu, zeuen segurtasuna inori axola izan gabe.
Hori da! Siriako Gerra Zibilaz ari direla irakurtzen edo entzuten dudan bakoitzean sutan jartzen naiz. Hau mundu-gerra bat baita, Sirian egin dutena. AEB, Turkia, Errusia, Saudi Arabia, Irak, Iran... asko dabiltza honetan nahasita, baina hildakoak, mota guztietakoak, siriarrak dira.

Zure bizia arriskuan jarri zuen eta egiteko moduagatik nahiz ondorioengatik gaitzesten duzun irudi berberak, baina, fama eta arrakasta ekarri dizkizu Europan. Ez da anbibalentzia erraza, ala?
Ez, eta horregatik daukat amodio-gorrotozko harremana nire istorioarekin. 2015ean Alemaniara iritsi eta errefuxiatu pasaportea eskuratu bezain pronto hasi nintzen kontzertuak ematen; 20, 30... Hilabetero! Parisen, Londresen, Hiroshiman... Argazkiko pianista" nintzen, "kamiseta berdeduna", gero eta jende gehiagok errekonozitu ninduen, eta sekulako eskaintza uholdea jasotzen hasi nintzen. Gaur egun ere halako hamar bat email sartzen zaizkit postontzian egunero. Gainetik kendu ezin dudan erruduntasun sentipen sakona daukat, ordea. 350 orrialdeko liburua idatzi dut horren kontura!

Zergatik?
500.000 lagun baino gehiago hil dituen gerra baten erdian norbaitek egin zidan argazkiak jarri nauelako nagoen tokian! Gainera, madarikazio moduko bat da, ezarri didaten etiketa bat: Europara iritsi nintzenetik makina bat proiektu borobildu dut, konposizio ezberdinak, diskoak, kolaborazioak... Baina soilik era batera edo bestera "argazkiko pianista" bezala identifikatzen nauten horiek dute arrakasta. Eta horrek iragan mingarria behin eta berriz gogora ekartzera kondenatuta nauka. Aurkezpen bakoitzean, elkarrizketa bakoitzean...

Deseroso al zaude oraintxe?
Ez! Orain ez... Elkarrizketa hau hausnarketa bideratzen ari zaidalako. Baina sinets iezadazue, kazetari gehienen galderek detaile odoltsuak bilatzen dituzte, bonbardaketen testuinguruko morboa, nire hatzak moztera etorri zirenekoa, emazteak eta biok kartzelan pasatako egunak... Eta ezin dut gehiago. Gainera, badakizu zer gertatzen den? Kazetariekin eta ezezagunekin egiten ari naizela senitartekoekin etxean egin beharko nukeen ariketa; atzera begiratzea, barruko mamuak ateratzea, nola sentitzen garen elkarri galdetzea... barne-kaos honetan ordena apur bat jar-

KALEAN PIANOA JOTZEN
ERAKUTSI ZUEN ARGAZKI HONI ESKER EGIN ZEN FAMATU AHMAD. BAINA ARGAZKI HORREN ERRUZ IA-IA HIL ZUTEN.

tzea. Baina erritmo frenetiko honek ez dit tarterik uzten.

Osasun mentala gerra errefuxiatuen eta bestelako errefuxiatuen auzian bazter batean ahaztuta utzi dugun arazo larria da, ondorioak epe ertain-luzera antzemango ditugulako beharbada. Ez al zaizu iruditzen?
Justu ni sartu ostean itxi zituzten Alemaniako ateak. Gogoan dut bidean inoiz baino indartsuago sentitu nuela nire burua, Europan barrena 2.500 kilometro oinez egitea gauza erraza izan zen, banuelako helburu bat, ipar bat. Gero pasaportea lortzea, gero emaztea eta semea ekartzea, gero aita eta ama... Eta bien bitartean musika. Baina ez pentsa Alemanian inork gure barne-prozesuak ulertu eta kudeatzeko laguntza eman zigunik. Hara heldu eta, yallah! Lanera! Gertatutako ezer liseritzeko astirik eta arreta profesionalik gabe. Ni gaztea nintzen, banuen helduleku bat, baina... familia osoa galdu zuten haiek? Zaharrek?

Nola sentitzen zara orain?
Ba, arrakasta betean ere, familia bil-tzea lortu dudan arren, edo agian horregatik, orain noraezean nabil. Tarteka ideia suizidak izaten ditut. Beharbada orain irauli zait trauma gainera. Eromen honekin amaitzeko go-

> ***"Amodio-gorrotozko harremana daukat nire istorioarekin. 2015ean Alemaniara iritsi eta errefuxiatu pasaportea eskuratu bezain pronto hasi ahal izan nintzen kontzertuak ematen; 20, 30... Hilabetero!"***

goa dut. Ez dakit sei hilabete barru edo urtebeteren buruan izango den, baina kontzertuak emateari utziko diot. DHL enpresan paleak alde batetik bestera mugitzen lan egin dezaket, errefuxiatu gehien-gehienek bezala, burua blokeatuta, ezertan pentsatu gabe, eta dirua irabaziz.

Baina pianoa maite duzu!
Jotzen jarraituko dut, etxean, etxekoentzat. Eta klaseak emango ditut, noski. Baina "argazkiko pianistak" ez du kontzertu gehiago eman nahi.

Wiesbadenen bizi zara orain. Yarmoukera itzuli nahi duzu?
Bai, baina pasaporte alemaniarrarekin. Bizitza ez zen erraza errefuxiatu hirigune hartan. Etxeek zazpi eta zortzi solairu zituzten, igogailurik gabe. 700.000 lagun bizi ginen pilatuta, maite nuen ordea. Bizitza bizia zen han. Baina errefuxiatu jaio nintzen, libreki mugitzeko eskubidea ukatuta bizi izan naiz, eta etiketa hori ere gainetik kentzeko garaia heldu da.

Ba al dago zuk zure buruarentzat nahiago duzun etiketarik?
Batez ere mestizajeak definitzen nau. Urte luzez musika klasikoan zaildu nintzen baina, oro har, Ekialde Hurbileko folka, bereziki siriarra, eta jazza nahastuz konposatzen dut. ●

LIBURUA

Kazetaritzaren argi-ilunak

PAPEREZKO HEGAZKINAK
LUTXO EGIA
EREIN, 2019

AMAIA SERRANO MARIEZKURRENA

Duela gutxi euskaratu du Koro Navarrok 36ko Gerrari buruz George Steerrek idatzitako saiakera: *Gernikako arbola. Gerra modernoaren landa-azterketa bat*. Britaniar kazetaria izan zen Gernikako bonbardaketa munduari kontatu ziona, diskurtso ofizialaren kontrako albistea emanez. Informazioa boterea da eta botere-lehiak geroz eta muga lausoagoak ditu. Funtsean eta labur esanda, borroka hori da, hain zuzen, nobela honetan azaleratzen dena, bai 36ko Gerrako testuinguruan, bai, neurri apalagoan, euskal gatazkarenean.

Gaia ez da berria, Gernikan gertatutakoa ongi baino hobeki ezagutzen dugu, eta euskal eleberrigintzak Santoñako hitzarmena edota Bilboko kartzelen erasoa ere hartu izan ditu hizpide (Saizarbitoriaren *Bihotz bi*-n topa ditzake irakurleak bi-biak). Alabaina, nobela honen berezitasuna kontabidean dago, forman. Komarik gabeko zerrendak, esaldi laburrak, istorioari jarraitzeko sarrerarik eta etenik eza, semantikoki lotutako plano aldaketak edo egitura sintaktiko errepikatuak dira estiloa definitzen duten ezaugarrietako batzuk. Poetaren ahotsa ere agertzen da tarteka, metaforen bidez irudi deigarriak sortuz: "Ontzi motordun txikietan bandera gorriek harro egiten zuten izokin urbanoen bidaia arratsaldeko lehen orduetan" (117).

Nortasuna, ardura politikoa eta etikoa, zalantza eta harremanak nahasten dira kazetaritzaren ajearekin batera, eta komunikazio eza irudikatzeko erabiltzen diren baliabideek horrekin guztiarekin dute lotura: hizkuntzen ezagutza (ingelesa ez menderatzea, gaztelania jakin bai baina frantsesez aritzea, eta abar), pertsonaien arteko harreman motak, gerra/gatazkari buruzko albiste manipulatuak, komunikazioa eragozten duen kartzela eta informazioa eskuratzeko tortura mekanismoak. 36ko Gerratik 1998ko euskal gatazkara egiten da jauzi behin eta berriz, Londresen dagoen Galder protagonistaren bidez.

Nobela gomendagarria da, baina baditu guztiz gogobete ez nauten zenbait alderdi, esaterako, edozein egoera gerra kodeekin interpretatzea: "Dantzazuloan oro zen Dresde Londres Nagasaki" (63). Dena dela, paperezko hegazkinen inozentziatik, joko literario interesgarria planteatzen du Egiak: zurikeritatik ihes egiteko letren plazarik aberasgarriena literatura da, irudimenak egingo baikaitu libre. ●



DISKOA

Agur ezin ederragoa

ROBERT TREVIÑO "MAHLER-EN 9. SINFONIA" ZUZENTZEN IRUÑEKO BALUARTEN.

MAHLER-EN 9. SINFONIA, RE MAIORREKOA
EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA
Zuzendaria: Robert Treviño
GASTEIZKO PRINCIPAL ANTZOKIA
Maiatzaren 9a

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Opari berezia ekarri digu Euskadiko Orkestra Sinfonikoak (EOS) bere azkeneko abonu-kontzertuan. Opari bikoitza esango nuke, alde batetik obra zinez ederra eskaini digulako, eta bestetik, interpretazio sakon eta sentitua entzun genuelako.

Zalantzarik gabe Gusav Mahler-en *9. Sinfonia* konpositorearen produkzio osoaren obra ederrenetako bat da. Lau mugimenduz osatutako lan erraldoi honetan mota guztietako giro eta sentimenduak aurki ditzakegu eta barruraino iristen den musika topatzen dugu une guztietan. Kontutan izan behar dugu Mahler-en azken sinfonia izan zela. 1909. urtean amaitu zuen lana eta 1911. urtean hil zen konpositore austriarra, 50 urte zituela. Lan indartsua da, adierazgarria, bizia. Oso kuriosoa da, baina oso musikazale ez den pertsona batek entzuten duenean, ez daki esaten gustatzen zaion ala ez; baina bai esaten du barruraino iritsi zaiola musika hau, nolabait bere barrukoak mugitu dituela. Egin ezazue proba.

Gaixorik zegoenean idatzi zuen sinfonia hau Mahlerek, baina hala eta guztiz ere, ez da lan ilun edo nostalgikoa. Alban Berg konpositoreak adierazi zuen bezala "Mahler-ek sekula idatzi zuen sinfonia loriatsuena da. Lurra eta natura biziki maite zituela ematen du aditzera, bertan bakean bizi nahi duela, erabat disfrutatu nahi duela, barne-barneraino, heriotza iritsi arte, denoi iristen baitzaigu, lehenago edo geroago, heriotza".

EOSek, Robert Treviñoren zuzendaritzapean, jakin izan zuen sentimenduak transmititzen. Irakurketa adierazkorra egin zuen zuzendariak, non garrantzi handikoak izan ziren erritmo markatuak, isiltasun adierazkorrak, eta soka doi-doia. Ehunduren eta fraseaketaren menderatzea, nagusitasun izugarriarekin, interpretazioaren ezaugarri nagusia izan zen uneoro. *Pianissimi* zoragarriak, umore aldaketen delikadezia, disonantzien garbitasunen atximurra... Dena puntu-puntuan egon zen, dudarik gabe.

Une magikoa bukaeran iritsi zen. Sinfoniaren *Adagio* xarmangarriaren ikuspegi mistikoa eman zuen Robert Treviño zuzendariak. Infinitoraino luzatu zituen soinu-izpiak. Doitasunez eskaini zuten giro magiko-erlijioso hori. Zur eta lur geratu ginen han geundenok. Zaila da Gasteizko antzokian sekulako txalokadak lortzea, baina entzuleak maitemindurik geratu ziren. ●



Neguko orbainak

AINHOA GUTIERREZ DEL POZO

Punto de Vistan, Nafarroako Zinema Dokumentaleko Nazioarteko Jaialdian, estreinatu zuen Jorge Moneo Quintanak *Orbainak* filma. Ekainaren hasieran Madrilgo Filmadrid zinemaldian jarraituko du bere bidea. Gure historia hurbilak denboran zehar utzitako arrastoak miatzen ditu 29 minutuko lanak.

"Historiaren izaera krudela eta zentzugabea ulertzen ez duenak, historiari zentzua emateko grina ere ez du konprenituko": Nietzscheren zitak zehazten du zuzendari gasteiztarrak bere lana begiratzeko egiten digun proposamena, eta bide batez, printzipioen aitorpena. Esaldiaren lehen taldekoak bagara, akaso ez dugu filmaren beharra gorpuztuko; talde horretakoak ez garenok, ordea, gure 'orbainak' biluzteko premiak hartuko gaitu. Zentzua eraikitzeko bada ere.

Osaba, Aita eta Semearen inguruko testigantzen bitartez josten dira filmeko irudiak, off-ean. Artxiboko materialak nahiz zuzendariak ekoitzitako bideo irudiek eszenatoki bera dute objektugai: azken mendeko gertaerek eraldatu duten Goierriko paisaia, zentzu fisiko eta psikologikoan. Irudiak ikusten denetik abiatzen dira; ahotsak, ikusten ez denetik. Batak besteari gehitzen dionarekin sortzen du Moneok kontatzeko gailua. Ardatz moduan harturiko hiru pertsonaiak gure familietan bahituak, torturatuak, erailak, salatuak edo desjabetuak izan diren senide berberak dira; badugu, hortaz, nola irudikatu testigantzak. Gatazkak utzitako haragi bizian, nola jarri irudi berriak zaurien gainetik? Gutako bakoitzak soinean daramatzan 'artxiboekin' osatzen da filma, eta proiekzio bakoitzarekin berreraiki.

Negua. Elurturik ageri dira filmaren lehen irudiak, zuritutako mendi eta harrobiak. Negua kanpoan eta barnean. Eta giro hotzak filma bera hartzen du, eta ikuslea. Tartean azaltzen dira udako festak, dantza eta kantuak: identitateaz aritzeko ezinbestekoak direnak. Baina udari ez dario berorik, eta kantuei ez giro alairik. Jaiek airea dakarte, atsedena. Testigantzen su-etena, nahi bada. Baina negua berriz jasateko adina, soilik. Negutik negurako pasartea. Negua bera bermatzen duena. Eta, gero, berriro hotza.

Laboaren negu gorria datorkit gogora, Brecthen Broadway eta 26. karrikaren artean. Eta bertako gizonaren saiakera gauero aterpe bila "bilutsirik daudenentzat". Ondoren datozen hausnarketak: munduak berdin jarraitzen duela, baina gau batez behintzat, gutxi batzuek lo egiteko tokia dutela. Nik ez dakit orbain hauek estalgabetuz ere horrelako aldaketarik eman daitekeen. Beharbada, ez. Bai, ordea, gau baterako aterpe gisa, biluzteko espazio bat sortu. Zauriak erakutsi eta oroitzapenak bildu. Nahiz eta 'bereri zijoakien elurra oraindik karrikan ari da'n.

Goierriko atzo eta gaurko paisaietatik haratago, iraganaren zentzu bilaketak agian etorkizuna pentsatzeko balio lezake; eta hala izanda, gure hurrengo 'artxiboekin' jabetzeko bultzada eman. Filmetik abiatuta. Eta horrela Iloba, Biloba eta ondorengoak izan. ●

'ORBAINAK' FILMA

NOIZ: Martxoak 12
NON: Punto de Vista jaialdia, Iruñea

Hitz gezidunak

EZPATA-DANTZAREN ZATI BAT ---------- JOLAS, JOSTETA

KONPARA-ZIOA ---------- NORI ATZIZKIA

ZATI TXIKI

KETA ---------- **PERTSO-NAIAREN ABIZENA**

HEGAZTI JAIOBERRIA ---------- TEKNIKA HITZ

AINTZA, LORIA ---------- EHIZA, HARRAPAKINA

HAUR TXIKI ---------- DAGO

HORMAKO IREKIGUNE ---------- MUSU

PLATINOA ---------- **PERTSO-NAIAREN ABIZENA**

BAKARRA ---------- ZUR PREZIATUA

KRISTAU TITULU ---------- BASOBERAK, TXARAKAK

IRENTSI ---------- EUSKAL HERRIKO MENDIA

BAKAILAO ARRABA ---------- ISKANBILA

ITSATSI, ERANTSI ---------- SOINUAK GRABATZEKO ZINTA

AIPATURIKO ARTIKULU (LABURDU-RA) ---------- OHITURA

ILUNSENTI

JAINKO ERRO-MATARRA ---------- NAFARROAKO HERRIA

FRUITU TROPIKALAK ---------- TETELEAK, KAIKUAK

ZERU, IZARTEGI

BAZKIDE ---------- DAUKAN

BARAZKIEKIN PRESTATUTAKO PLATER ---------- DISOLBATZE

NONDAR ATZIZKIA ---------- ENBOR

KORTA, ABELTEGI ---------- EZEZTATZEKO

TONA ---------- EUSKAL FONEMA

IZAERA, ESENTZIA ---------- EGOKIA

NAFARROAKO IBAIA ---------- OXIGENOA

EZKONTZERA BEHARTU

Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

		8		1				4
		5		8		6		
	6	1			9			
4	8	3			7			
	2						9	
			2			7	8	3
			6			5	4	
		2		5		1		
7				2		9		

5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

1. Adina, bezainbat
2. Urtearen seigarren hil
3. Madarikazio, arnegu
4. Jaurtiketa
5. Nireak

EBAZPENAK

5X5:

1. BESTE, 2. EKAIN, 3. SAKRE, 4. TIROA, 5. ENEAK.

3	4	5	7	8	2	6	1	9
2	6	1	4	3	9	8	5	7
4	8	3	1	9	7	2	6	5
5	2	7	3	6	8	4	9	1
1	9	6	2	4	5	7	8	3
8	1	9	6	7	3	5	4	2
6	3	2	9	5	4	1	7	8
7	5	4	8	2	1	9	3	6

O	N	A		E	Z	K	O	R	A	N	O	K	A	Z	I
	I	Z	A	T	E	A		O	L	E	N	A	R	T	Z
U	R	T	Z	E		U	K	I	L	U					T
	E	N	T	S	A	L	A	D	A		T	A	R		
I	L	U	N	A	B	A	R		S	O	Z	I	O		
	K	A	K	O		A	N	A	N	A	K				
J	O	A	R		A	T	X	I	K	I		A	A		
	K	L	A	S	K	A	T	U		M	A	Z	I		
D	A		P	T		B		M	A	R	T	I	R		
	N	I	N	I					L	E	I	H	O		
K	I	R	O	L				M	I	T	X	E	L		
	B		K						B		T				G

Daniel Pascual

GUATEMALAKO
BURUZAGI INDIGENA

GAZTETATIK ENGAIATUA

"Kiché herrikoa naiz, maia familia nekazari batean sortua. Gaztetatik sartu ginen herri borroka sozialetan. Aita AEBetara joan ziren lehen atzerritarretako bat izan zen, 1978an itzuli zen. Garai hartan borroka ugari zeuden Guatemalan, aita izan zen hor sartzen lehena, baina haren eskutik familia osoa sartu ginen. Hiru neba-arreba galdu nituen gerran, eta bake garaian jazarpena ez da amaitu: hedabideetan seinalatu naute eta 2013an bi atentatu jasan nituen".

"Indigenok ez gara arazoa, zibilizazioa gara"

Nekazarien eta indigenen *Comité de Unidad Campesina* (CUC) erakundeko buruzagia da Daniel Pascual (Zacualpa, Guatemala, 1971). Maia Koordinakunde eta Elkargune Nazionaleko arduraduna eta Via Campesinako Guatemalako koordinatzaile ere bada. Transnazionalen ustiaketa proiektuen aurkako borrokan nabarmendu da azken urteotan, eta gobernu neoliberalistaren bilakaera autoritarioa salatzera etorri da gurera.

JABI ZABALA
ARITZ LOIOLA

CUCen sorrera 1960-1996 urte arteko gerran kokatzen da. Nola sortu zen?
Prozesu demokratikoa egon zen Guatemalan 1944an. Nekazaritzan eta ekonomian aldaketa handiak egiten saiatu ziren orduan, baita gizartean, hezkuntzan, osasunean... AEBek ez zituzten aldaketok ontzat eman eta 1954an estatu kolpea eman zuten. Horrek soldadu eta herritar asko sutu zituen. Gainera, 60ko hamarkada hasieran Guatemalan mertzenarioak entrenatzen ari ziren, Kuba inbaditzeko. Ondorioz, ofizial gazte batzuk matxinatu eta mendira jo zuten. Haiek sortu zuten FAR, lehenengo gerrilla. Gogor jazarri zuten FAR, ia suntsitzeraino. Kide askok erbestera jo zuten baina gerora itzuli eta hiru gerrilla talde berri sortu zituzten. Eliza katolikoan ere askapenaren teologia indartsu zegoen, kooperatibak sortu ziren... Testuinguru horretan sortu zen CUC erakundea. 1976ko lurrikarak CUC-i indar handia eman zion, borroka azkartuz, agerian geratu baitzen pobrezia eta jendearen babes falta.

Nola bat egin dute indigenek bertako borroka sozial eta politikoetan?
Erresistentzia indigena beti egon da Guatemala eta Mexikoko maia inguruetan. Horren adibide dira Atanasio Tzul maia buruzagiaren 1820ko matxinada edo 1847ko Yucatango kasten gerra. Indigenen askapen nahia betidanik egon da. Bi borrokek, sozialak eta indigenak, 70eko hamarkadan egin zuten topo. Gerrilla sortzean, indigena askok honekin bat egin zuten hainbat arrazoirengatik: estatu kreole burges kapitalistak indigenekiko zuen bazterkeria eta arrazakeriagatik, eta haren monokulturalismoak herriak suntsitzen zituelako. Sektore indigena zabalek estatu horren aurka armak erabiltzea onartu zuten justizia bilatzeko muturreko era legez, eta hainbat agiri atera zituzten 1970ean, gerrillak indigenen aldarrikapenak kontuan har zitezen eskatzeko. Gerran parte hartze aktiboa izan zuten eta indigenak nabarmentzen hasi ziren gerrilla taldeen buruzagitzetan. Horrek ekarri zuen gerrillak gai honetaz hainbat gogoeta egitea.

Gogoetak zuzenak ziren?
Tamalez, zenbait liburu agertu ziren 'arazo etniko-nazionalaz', baina

"GERRILLA EZKERRAREN ABANGOARDIA MODUAN SORTU BAZEN ERE, ELEMENTU INDIGENA EZ ZEN EURENTZAT ERAKARGARRIA".

guk beti esan dugun moduan indigenok ez gara arazoa, zibilizazioa gara, dagozkion elementu guztiekin. Badugu mundu ikuskera berezkoa, espiritualitate ez erlijiosoa, energien konexioaz diharduena, gizakion eta unibertsoaren artekoa, lurraren eta elementuen artekoa. Egiazkoa dela frogatu da gainera, baieztatu baita eguzkiak lurrean eragiten duela, elkarri lotuta daudela lurra eta izaki guztiak.

Nola jaso beharko litzateke indigenen ikuspegia egungo Guatemalan?

Batetik, antzinatik datozen autoritate indigenak, gure legeak, oraindik ez daude jasota, Guatemalan ez dago aitortuta aniztasun juridikoaren existentzia. Bestetik, lurraldeak aitortzea dugu beharrezko, ez soilik ekoizpen terminoetan, bertan errotu eta loratu baitira arbasoen jakinduria, ohiturak, tradizioak, elikadura, oihalak, harremanak, arteak... Turismorako erabiltzen dituzte, baina ez dute onartzen gure kulturak espiritualitateari dagokionez egindako ekarpena. Maien egutegia da horren adibide: bere zehaztasuna goraipatzen dute turistei saltzeko bakarrik. Gure hizkuntzak, hizkuntza moduan aitortuak izan daitezen nahi dugu. Ondasun handia dira beren dialektoen aberastasunagatik. Asko dago egiteko, estatuak ez baitu bere baitan onartzen aberastasun hori. Orain, gainera, lurrak korporazioei esleitzen dizkiete, mineral, petrolio edo nekazaritza ekoizpen industrialerako.

Ustezko unibersaltasun monokulturalistari lotuak izan diren frantziar eta espainiar ezkerrei hizkuntzak mundu ikuskera dakarrela ulertarazteko borroka handiak izan dira hemen.

Gurean ere borroka latza izan da, gerrilla ezkerraren abangoardia moduan sortu bazen ere, elementu indigena ez baitzen eurentzat erakargarria. Ezkerraren hutsegite handia izan da, indigenok gehiengoa baikara Guatemalan —gehienak emakumezko eta gazteak—. Hala ere, ezkerrak bere programetan edo hautagaien aukeraketan ez du hori behar bezala islatu. Nekazal mugimenduan ere, oso ezkerreko foroetan, esan behar izan dugu kapitalismoaz harago, marxismoaren klase ikuspegiaz harago, jatorrizko herriak garela, naturari atxikiak, klima aldaketari eta garapen eredu honek ekarri digun zibilizazio krisiari konponbideak proposatzen dizkiegunak. Baina ezkerrak gehienetan eskuineko estatu burgesaren arauekin jokatu du garapenaren gaian.

Guatemala korporazioen menpe dagoela salatu duzu.

Estatuaren zerbitzuen pribatizazioa ari da ematen, estatuak enpresen menpe jartzen dira. Badakite planeta suntsitzen ari direla: mendietako meategiak, oihanak, muinoak... Ura gai kimikoekin nahasiz kontinentea suntsitzen ari dira. Ondasunak metatzeko helburua duen mentalitate handinahiarekin, milioika jende kontutan hartu ez eta genozidio eta gosete berriak sortzen ari dira. Bestalde, herri indigenak babesten dituzten legeak ezagutzen dituzte, baina arpilatzea zilegi bilakatzeko, legeak aldatu edo ez ikusiarena egiten dute.

Zeintzuk dira Guatemalan ustiaketa suntsitzailearen arduradunak?

Frantziako Perenco, Italiako Enel eta Espainiako Hidralia enpresak adibidez. Baina enpresen atzean nor dagoen ez dakigu. Esaterako, Real Madril taldeko presidente Florentino Pérezena da oihanak suntsitzen ari den ACS enpresa hidroelektrikoa. Jende zintzo eta ospe onekoa omen da, baina berez suntsitzailea da. ●

BIDALI ZURE HARRIKADAK: **BERANDUEGI@ARGIA.EUS**

Janari-banaketa enpresa batek afariak mastekatuta zerbitzatuko ditu Bilbon

"Jatea oso gauza motel eta aspergarria da gaur egungo bizimodu dinamiko eta aldakor honentzat: eta norbaitek lana erraztuko balizu?". Galdera horrekin iragarri du bere burua sare sozialetan Masteekoo janari-banaketa enpresa berriak. "Merkatuan hutsune bat zegoela ikusi genuen", esplikatu du Borja Gangoitik, enpresako CEOak. "Ez da posible XXI. mendean oraindik pertsona bakoitza bere janaria mastekatzeko lana hartzera derrigortua egotea. Ez gara Kuban bizi". Enpresak azaldu duenez, Masteekooko banatzaileek beste banaketa zerbitzuetakoen denbora berdinean eramango dute janaria etxera. "Gure *rider*-ek pedalei eragin bitartean mastekatuko dizute afaria, horrela ariketa-fisiko bikoitza egingo dute eta euren osasunak eskertuko du", azaldu du Gangoitik. ●

SAREAN ARRANTZATUA

Momentu itxelak!

Abolition ari du

Jubilatu batek hamahiru urte daramatza AHTren obrak hesi baten atzetik kritikatzen

2006an lehen harria jarri zutenetik, Jose Luis Irastortzak egunero-egunero kritikatu ditu lanean dabiltzan obreroak, soinean daraman hesi horiaren atzetik beti. "Pagotxa da AHTren proiektua. Daukan atzerapenarekin, jubilazio urte ederrak izango ditut beste puska luze batean", azaldu digu. "Horitxo [izen hori jarri dio hesiari] soinean eramaten dut beti. Zornotzan, Azkoienen, Bergaran edota Aramaion izan naiz jada, nire ezagutzak obreroekin partekatzen. Pena handia izango dut obrak erabat amaitzean, 2057an-edo. Jendeak uste du proiektu oso garestia dela, baina adinekoon ongizatearen alde egiten ari dena ez dago eurotan neurtzerik. Begira erraustegia, pfff, a ze mokordoa. Hesia hartu eta Zubietara joatekotan izan nintzen. Eskerrak ez nuen hemendik alde egin, bi egunetan eraiki dute". ●

EHZ

Ekainak 28/29/30

IRISARRI

(BAXE NAFARROA)

PELAX

ISEO & DODOSOUND

NIZURI TAZUNERI

IZAKI GARDENAK

OIHANEKO ZÜHAINETAN

ALBA

GARI & MALDANBERA

RODEO

BROKEN BROTHERS BRASS BAND

RAY FERNANDEZ

LED SILHOUETTE

OLD SCHOOL FUNKY FAMILY

KOBAN

NIÑA COYOTE & CHICO TORNADO

CUMBIAN'BERO

MONTAUK

IBIL BEDI

ANARI

WILLIS DRUMMOND

ASTOKILLO CIRCUS

TOI D'ABORD

ZIKIROA

TAILERRAK

HAURREN XOKOA

EZTABAIDAK

...eta anitzez gehiago!

ehz.eus

ARGIA
1919 · 2019

Zerukotik lurrekora

Emanaldi guztiak: **San Telmo Museoa** Donostia **19:00**

Maiatzak 21 asteartea

Koldo Izagirre

Mendearen umeek munduari desafio

Hitzaldia

Maiatzak 22 asteazkena

Antton Olariaga
Joseba Larratxe

100 urte, ehunka irudi

Hitzaldi ilustratua



Maiatzak 24 ostirala

Joxemari Ostolaza 'Xalbardin'
Josu Landa
Malores Etxeberria

Enpeinatzea ez bada libre

Errezitala

Maiatzak 28 asteartea

Elixabete Garmendia

Euskarazko kazetaritzaren intrahistoria bat

Hitzaldia

LAGUNTZAILEA

BABESLEAK